

Año LXXXV. urtea

289 - 2024

Mayo-agosto
Maiatza-abuztua



Príncipe de Viana

SEPARATA

Urdazubiko San Salvatore
premontretar monasterioa:
burdingintza gune
Behe Erdi Arotik
XIX.mende arte

Malen Lizarraga-Olano

Sumario / Aurkibidea

Príncipe de Viana

Año LXXXV • n.º 289 • mayo-agosto de 2024
LXXXV. urtea • 289. zk. • 2024ko maiatza-abuztua

ARTE / ARTEA

El emplazamiento del claustro románico de la catedral de Pamplona Rafael Arrizabalaga Lizarraga	341
--	-----

Iglesia de Santa María de Piedramillera: estudio histórico, artístico y cultural Irene Olejua Sánchez	379
--	-----

HISTORIA

El antiguo camino real de Pamplona a San Sebastián (XII-XVIII) José Antonio Recondo Bravo	437
--	-----

Del vado al puente. Orígenes del histórico paso del río Irati y su puente en Lumbier Roberto Ciganda Elizondo	465
---	-----

Análisis de la situación del cabildo de la catedral de Pamplona bajo el obispado de Martín de Zalba (1377-1403) Ángeles García de la Borbolla García de Paredes	497
---	-----

Esteban de Zuasti, militar. Vínculos con Íñigo de Loyola y los Jaso Josetxo Músquiz Pérez de Zabalza	527
---	-----

La Casa del Caballo Blanco y el legado testamentario de María Juan Irati Zurbano Zuazu	553
---	-----

Urdazubiko San Salvatore premontretar monasterioa: burdingintza gune Behe Erdi Arotik XIX.mende arte Malen Lizarraga-Olano	579
--	-----

Euskal lurraldeetako himnoak Xabier Zabaltza, Karlos Sánchez Ekiza	611
---	-----

Sumario / Aurkibidea

Curriculums	641
Analytic Summary	645
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	649

Urdazubiko San Salvatore premontretar monasterioa: burdingintza gune Behe Erdi Arotik XIX. mende arte

El monasterio premonstratense de San Salvador de Urdax: núcleo siderúrgico desde la Baja Edad Media hasta el siglo XIX

The Premonstratensian monastery of San Salvador of Urdazubi/Urdax:
an iron industry center from the late Middle Ages to the 19th century

Malen Lizarraga-Olano

Investigadora predoctoral. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Maialen.Lizarraga@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0002-2902-8387>

DOI: <https://doi.org/10.35462/pv.289.8>

Jatorrizko testua 2024/05/27ko jaso zen. 2024/07/02ko behin-behinean onartu zen. 2024/07/22ko behin betiko onartu zen.

LABURPENA

Urdazubiko premontretar monasterioaren burdinola XV. mendetik da ezagun, eta XVI. mende amaieran Baztango Haranarekin elkarlanean eraikitako Bakeola gehitu zitzaion. Burdingintzak lekaideen jarduna baldintzatu zuen, eta monasterioaren zinezko sostengua izatera igaro zen. Lan honetan, beraz, ekoizpen horren nondik-norakoak azalduko dira, eta sortutako harreman eta elkarreraginak aztertu.

Gako hitzak: Urdazubi; monasterioa; burdinolak; burdingintza.

RESUMEN

La ferrería del monasterio de premonstratense de Urdax es conocida desde el siglo XV y a finales del siglo XVI se le unió la ferrería Bakeola, construida en colaboración con el Valle del Baztan. La siderurgia condicionó la actuación de los religiosos, y pasó a ser el auténtico sostén del monasterio. Por tanto, este trabajo explicará el desarrollo de esta producción y analizará las relaciones e interacciones que surgieron a su alrededor.

Palabras clave: Urdax; monasterio; ferrerías; siderurgia.

ABSTRACT

The ironwork of the Premonstratensian monastery of Urdax is known since the 15th century, and at the end of the 16th century it was joined by the Bakeola ironwork, built in collaboration with the Baztan Valley. The iron industry conditioned the actions of the monks and became the true support of the monastery. Therefore, the aim of this work is to explain the development of this production, and to analyze the relationships and interactions that emerged around it.

Keywords: Urdazubi/Urdax; monastery; ironworks; iron industry.

1. SARRERA: BURDINGINTZA NAFARROAN. 2. URDAZUBI ETA BAZTANGO BURDINOLAK. 2.1. Urdazubiko monasterioaren burdinola edo Olazarra. 2.2. Bakeola. 2.3. Olazarra eta Bakeolaren errenta eta produkzio datuak. 3. BURDINOLEN BEHARRERAZKO LEHENGAIK. 3.1. Burdin minerala eta errege zedulak. 3.2. Su egurra, zura eta ikatza. 4. BURDINGINTZAREN AMAIERA. 5. ONDORIOAK. 6. ERREFERENTZIEN ZERRENDA.

1. SARRERA: BURDINGINTZA NAFARROAN

Burdingintzaren historia luzea da, baina Nafarroan albiste gehien Behe Erdi Arotik aurrera jasoko dira, burdinola hidraulikoekin agerpenarekin. Horiek, batez ere, Pirinioen luzapenetan hedatu ziren, kantauriar isurialdeko lurretan, baso eta ur-korronteen ugaritasuna eta minerala lortzeko erraztasunagatik. Haatik, Nafarroako burdingintzak lotura zuzena izan zuen inguruko lurraldeetan garatu zen siderurgiarekin, eta ezinen da guztiz ulertu, batez ere, Gipuzkoarekin izan zuen harremana aztertu gabe.

Gainontzeko euskal lurraldeetan ez bezala –zehazki, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban (Díez de Salazar, 1989, 598-600. or.)–, Nafarroak ez zuen burdinolen forurik izan. 1328an, Oiartzun eta Irun-Uranzuko burdinolek (Gipuzkoa) Alfontso XI.ari usadio eta ohiturak oinarri hartuko zituen pribilegioa eskatu zioten. 1535ean, Deba arroko herriek eskuratu zuten: Lastur, Mendaro eta Ego bailaretakoek. Markina de Susoko Burdinolen Forua bezala ezagutua, hau ere Alfontso XI.ak eman zuen, eta Irun/Oiartzungoei aitortutakoaren osagarria izan zen. 1338an, Gipuzkoako Merindade osora zabaldu zen; eta 1440an, Bizkaiko burdinolek ere horien foru propioa eskuratu zuten. Foruek burdinolen jarduera arautzen zuten, eta izaera juridiko apartekoa onartzen zieten (Díez de Salazar, 1983, 62. or.). Nafarroako burdinolek, ordea, ez zuten lurralde osora zabaldu zen araudi bereizgarririk izan, eta horiek eraikitzeko lizentziak zuzenean norbanakoei ematen zizkieten errege-erreginek (Mugueta, 2010, 17. or.). Karlos II.a *Evreux*-ekoarekin burdinolen inguruko interesa piztu zen koroaren aldetik; olagizonekin bitartekari lanetan hasi zen, eta jarduera horren gaineko kontrola areagotu zuen. Burdinolen ahalmenaz jabetuta, XIV. mendearen erdialdetik, Karlos II.ak politika fiskal berezi bat paratu zuen martxan, eta bere helburua burdinaren merkatua monopolizatzea izan zen (Mugueta, 2008, 544. or.).

XIV. mendearen bigarren erdialdean, burdinolak Nafarroa iparralde guztira hedatu ziren, eta, are gehiago, XV. mendean zehar. Nabarmentzekoa da horiek, nagusiki, kantauriar isurialdean eraiki zituztela. Izanen da salbuespenik, hala nola Eugi, Orbaizeta edota Orokieta-Erbitiko olak. Hemen agertuko dira Urdazubi eta Baztangoen inguruko aurreneko albisteak. Izan ere, 1403 eta 1404eko Kontu Arrunten Erregistroan, Iruñeko Merindadeko diru-biltzaileak Baztango lurretan «Arrugoz» izeneko burdinola aipatu zuen, zeinak 10 liberako *lezta* ordaindu beharra zuen¹. Lezta burdinolek urtero ordaintzen zuten zerga finko baino nahiko apala zen. Berariazko zenbait produkturi ezartzen zitzairen, eta burdinolen leztak burdina fiskalizatzen zuen (Mugueta, 2008, 535. or.; 2019, 95. or.). Dokumentu horietan Baztango bailaran, soilik, Arrugoz burdinola zenbatu zuten, eta horren lezta Pere Arnalt-i zegokion. Pere Arnalt Garro, Garrotarren leinukoa, lapurtarra, Karlos II.aren ganberazaina izan zen, eta Karlos III.arekin ere zenbait kargu izan zituen. Horien ordainetan Nafarroako hainbat burdinolen onurak dohaintzan jaso zituen; artean, Baztangoak (Jiménez de Aberásturi 1980, 336. or.).

Arrugoz izena hartzen zuen burdinola Martin Periz Irurita, Matxin Kabeza, Otxoa Lesaka eta Peruzar Retxilkoren eskuetan zegoen dokumentu horien aburuz. Baina zalantzak sortzen dira burdinola horren inguruan, oso erreferentzia gutxi baitaude. Eulogio Zudairek (1979, 138. or.) ondorengoa dio Urdazubiko monasterioaren burdinola eta Arrugozen harira:

En 1456 ratifica con su firma el Príncipe de Viana la gracia del impuesto de lezda al monasterio de Urdax, por su ferrería llamada Arrugoz, en tierra de Baztán. Parece que en ambos casos se trata de un mismo dueño, el monasterio de Urdax, aunque en el primero se mencionen sus arrendatarios y al arquero o administrador (1403/1404eko dokumentuari erreferentzia eginez). Pero si es la misma la empresa, no en cambio sus instalaciones; puesto que en 1423 había advertido el rey Carlos III al tesorero del reino y guarda de sus cofres, que tenía concedida remisión de cualquier derecho, por término de tres años, a causa de los grandes gastos ocasionados por la erección de la nueva ferrería.

Zudairek, antza, bi burdinola bereizten ditu, baina biak monasterioarenak ziren. Egia esan, Arrugozen inguruko aipuak ez dira ia errepikatzen. 1513an, Rodrigo Etxarri merkataria nafarra Iruñea eta Mendialdeko Merindadeko zerga biltzaile izendatu zuen Fernando Aragoikoak, eta burdinolen zerrenda bat osatu zuen². Zerrendatutako 75 burdinolen artean, azken biak Baztangoak izan ziren: Arrugoz eta Urdazubiko komentuaren eta abadearen burdinola. Biak desaginda eta lehena desagertua. Hemen ere bi olak bereizten ziren, eta lehenengoari ez zitzaion monasterioaren jabetza aitortzen. Haatik, 1534ean, Baztandarren eta Erroibartarren arteko auzi bat dago jasoa Nafarroako Artxibo Orokorrean. «Arguntzun» saroiaren erabilera eta jabegoa zegoen zalantzan, bigarrenek Aldudeko mendiei zegokiela baitzioten, eta ez Baztani. Interes-

1 Nafarroako Artxibo Orokorra (NAO), Comptos (CO)_ Erregistroak (REG), 1. Sekzioa (S), 275/276 zenbakia (zbk.).

2 NAO_CO_Reg., 1. S., 541-2 zbk.

garriena da, Arguntzongo saroia Arrugozko mendilerroan (Baztan) zegoela ziotela³. Gaur egun, ez da Arrugoz izena duen toponimorik aurkitu, baina Arguntzun ziurrenik «Argintzu» izanen da, Aldudeko mendietan. Ausartegia litzateke, ordea, Arrugozko burdinola hemen zegoela esatea; izan ere, Arrugoz Arraiozekin lotzen duenik ere bada⁴. Eta ez litzateke harritzekoa izanen, XIX. mende hasieran, Elbeten ere Baztango kontzejuak burdinolak eraiki baitzituen Baztan ibaiaren ertzeetan.

Nolanahi ere, Baztango lurrek, zein Urdazubi eta Zugarramurdikoek, burdinolak izateko baldintzak aproposak zituzten: klima epel-atlantikoa prezipitazio ugari eta erregularrekin; inguru menditsuak ur-korrante kontrolagarriekin; eta baso aunitz eta zabalak. Urdazubiko monasterioa izan zen, hala eta guztiz, lurralde horretako ekoizpena kontrolatu zuena: lehenik, monasterioaren burdinolarekin, Urdazubin bertan kokatua eta Olazarra izenez ezagutuko zena; eta, gerora, Bakeolaolarekin, Baztanen jabekidetzarekin eraikia.

Nafarroako burdingintzaren inguruko bibliografia nahiko urria da, eta ikerketak batik bat Behe Erdi Arotik aurrera hasten dira, erreferentzia dokumentalak ugariztearekin batera⁵. Urdazubiko eta Baztango burdinolen kasuan ere badira zenbait berariazko lan horien inguruan mintzo direnak (Pérez de Villarreal, 1977 eta 1978; Zudaire, 1979. or.). Ondorengo orrialdeek, beraz, horren berezia izan zen Urdazubiko monastegiaren eta burdingintzaren arteko harremana azalduko dute, instituzioaren eta ekoizpen zentroen historia uztartuz.

2. URDAZUBI ETA BAZTANGO BURDINOLAK

Jakina da Urdazubiko San Salvatore monasterioa Ordena Premontretarrak Nafarroan eraiki zuen bakarra izan zela, eta bertan eraikitzearen arrazoiak erromesak artatzea eta ospitalea ezartzea izan omen ziren (López de Gereño, 1996, 19. or.). Monasterioaren sorrerak zalantzak sortu ditu ordea. Aitortzen da hautatutako kokalekuak garrantzia izan zuela hasieratik, baina tokiak bestelako ezaguerak ere eman zizkion: hiriguneetatik aldentuta zegoen, eta baliabide urriko tokia zen (Goñi, 2009, 704. or.). Urdazubi eta Zugarramurdiko herriak monasterioaren menpean hedatu ziren, eta Erdi Aroan zehar monasterioaren eta herrien hazkunde ekonomikoa nekazaritzak eta, batez ere, abeltzaintzak baldintzatu bazuen ere, XVI. mendetik aurrera burdingintzak ezinbesteko papera jokatu zuen. Behin eta berriz errepikatzen den ideia da: jarduera hori, burdinaren eraldaketa, izan zen monasterioaren zinezko sostengua (Zudaire, 1979, 133. or.; López de Gereño, 1996, 25. or.; Goñi, 2008, 712. or.).

3 NAO_Auzitegi Errealak (AE), 209522 prozesua.

4 Enciclopedia de Navarra (*d.g.*). Ferrerías. http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=9770. «Con el reinado de Carlos III se realizaron esfuerzos para ampliar el área siderúrgica al valle de Baztán y se concedió licencia para el yacimiento de Arragoz (Arrayoz), en las cercanías de San Salvador de Urdax, pero los resultados fueron muy mediocres».

5 Behe Erdi Aroko Nafarroako burdingintza ezagutzeko ikusi Íñigo Mugueta lanak (2008, 2010, 2013, 2019).

2.1. Urdazubiko monasterioaren burdinola edo Olazarra

1402an, Pedro Ainhoak (*Pedro de Añoa* dokumentazioan) hartu zuen Urdazubiko monasterioaren abadetza, eta, 1415etik aurrera, hainbat eraikuntza-lan egiteari ekin zion. Horretarako koroaren laguntza jaso zuen, fraideen hitzetan kostuak handiak baitziren eta Urdazubiko bizimodua gogorra (Goñi, 2008, 709. or.). Testuinguru horretan eraiki zuten monasterioaren burdinola. Data zehatza ez bada iritsi ere, 1423an, Karlos III.ak burdinolari zegozkien zergak barkatu zizkien fraideei:

[...] el abat et convento del dicho monasterio de Sant Salvador d'Urdach fizieron en una ferrería que levantaron de nuevo en el territorio del dicho monasterio, et nos veyendo el grant trabajo que ponían a fazer la dicha ferrería les fiziemos gratia et remisión de todos et qualesquiere derechos que por causa de aqueilla nos podrían deber pal término de tres aynos [...] enfranquimos y remetemos por las presentes toda la imposición, lezta, quarteles et qualesquiere otras carga o cargas impuestas⁶.

Zerga barkamenak ohikoak bilakatu ziren Nafarroako erreinuan, burdinolen eraikuntzak kostu altuak eskatzen baitzituen. Eraikinak berregin eta berregokitzeko inbertsio handia egin behar zen, eta askok ezin zioten aurre egin. Horregatik, ohikoa izan zen errege-erreginek eskubide erreala ez ordaintzea baimentzen zuten barkamenak ematea. Laguntza edo deskarga gisa ulertzen ziren, obren gastuei aurre egiteko. Burdinolen zaugarritasunak, sarri, horiek etengabe konpondu beharra zirela esan nahi zuen: uholde, sute eta gerrateak izaten ziren arrazoi nagusiak. Askotan errepikatzen zen dinamika, gainera, merkatari eta olagizonen artean sortzen ziren mendekotasun harremanak ziren; instalazio horiek eraikitzeak eta egokitzeak ekartzen zituen inbertsioei aurre egiteko emandako maileguengatik (Alberdi, 1993, 8. or.).

Urdazubiko burdinolak XV. mende guztian zehar jaso zituen zerga barkamenak. 1423an, Karlos III.ak beste hiru urtez luzatu zien salbuespena berretsia izan zen, behin eta berriz, 1429 eta 1459 artean. Jose Goñik (2008, 710. or.) dio, 1429 inguruan, burdinola suntsitu egin zela –arrazoia ez da jakina–; eta berreraikitzeke limosna eta maileguak eskatu behar izan zituztela, baita monasterioko bitxiak eta ornamentuak bahituran eman ere. Abadeak eskatuta, une horretan, Zuria erreginak barkatu zizkien burdinolagatik ordaindu beharra zituzten leztaren 12 liberak. 1435ean, Zuria erregina eta Joan erregeak Gartzia Lopez Orreagari eta Joan Martinez Eskirozzi jakinarazi zien monasterioak barkamena zuela burdinolak ordaindu beharreko eskubideengatik –erresumako diruzaina eta Iruñea eta Mendialdeko zerga biltzailea ziren, hurrenez hurren–⁷. Era berean, 1447an, Karlos Bianako printzea izan zen agindu hori berretsi zuena⁸; eta, 1459an, Joan Beaumontekoak, Nafarroako kantziler eta gobernadorea Karlosen esanetara, agindu zuen Urdazubiko San Salvatore monasterioaren burdinola lezta ordain-

6 NAO_CO_Dokumentuak (Dok.), 122 kutxa (k.), 41,3(1) zbk.

7 NAO_CO_Dok., 137 k., 11,7 zbk.

8 NAO_CO_Dok., 154 k., 32 zbk.

tzetik salbu zegoela⁹. Badirudi, urte horietan, Kontuen Ganberako kideak mesfidati zeudela monasterioak jasotzen zituen barkamenekin, eta behin baino gehiagotan saiatu omen ziren burdinolak lezta ordain zezala eskatzen (Goñi, 2008, 712. or.).

XV. mendearen bigarren erdialdean monasterioaren burdinolaren inguruko aipamenak desagertu egiten dira. Nafarroa osora zabaltzen den gertakaria da ordea (Mugueta, 2013, 74. or.). Ezin da ziur esan horren arrazoia zein den, baina Nafarroako Erresumak garai horietan bizitu zituen egoera gatazkatsuetan egon daiteke erantzuna. Urdazubiko monasterioaren kasuan azpimarratzekoak dira 1526ko sutea eta 1793ko erasoak, bi gertakari horietan bertako dokumentazio ia guztia suntsitu baitzen (Goñi, 2008, 703. or.). Erreferentziak urritzen dira, baina horrek ez du esan nahi burdinolen produkzioa gelditu zenik. Ziurtatu daitekeena da, 1513an, burdinola geldirik zegoela eta berreraiki egin beharra zela¹⁰.

Hurrengo albisteak 1519koa da. Urte horretan, Juan de San Martin abadea izan zen Baionako hiriko kontseilura jo zuena. André de Foix-i, Asparrotseko jauna eta errege frantsesak Guienan zuen ordezkaria, egindako eta eginen zizkion mesedeak gorai-patu ondoren, abade eta fraideentzako asteko 2 karga gari eskatu zizkion kontseiluari. Gainera, monasterioaren burdinola ere aipatu zuen, bertan eraldatutako burdina Donibane Lohizuneko portura eramaten zutela eta frantziar erreinuan zabaltzen zutela esaten baitzuen, eta, beraz, burdinolak ere beharko zuen garia. Kontseiluak martxoaren 19an onartu zion eskaera (Goñi, 2008, 715. or.)¹¹:

[...] ave une ferrerie près les limites deu present reyaume, et lo fer qui se fey en ladite ferrerie se transporte au loc de Senct Johan de Luz, et se distribuye au reyaume [...]¹².

XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera monasterioaren burdinolaren inguruko albisteak ugaritu egin ziren, batez ere, Nafarroako Artxibo Orokorrean gordetako auziei esker. Urdazubiko monastegiaren historia Baztango Haranarekin izandako erabateko liskarrekin azaldu daiteke, eta oinarrian herri lurrekiko eskubideak zeuden. Baztandarren, monasterioaren, Urdazubiren eta Zugarramurdiren arteko liskar amai-gabeek informazio asko sortu zuten; eta, sarri, monasterioaren burdinola zegoen tartean. XV. mendetik hasi eta XIX. mendera arte monastegiak eta haranak behin eta berriz aldatu, moldatu eta hitzarmen berriak sortu zituzten –hainbat epaiketa tarteko–. Burdinola geroz eta indar handiagoa hartzen ari zenez, arazoez borborrean jarraitu zuten. XVI. mendean zehar, monastegiaren oinarri ekonomikoa abeltzaintza izatetik burdingintza izatera igaro zen apurka-apurka. Badirudi, tokian-tokiko autoritateek eta auzokideek eli (*busto*) handien aurkako presioa areagotu zutela (Aragón, 2021, 90. or.). Hori, batez ere, XV. mendeko Gipuzkoan ikus daiteke argi, instituzio eklesias-

9 NAO_CO_Dok., 158 k., 18,2 zbk.

10 NAO_CO_Reg., 1. S., 541-2 zbk.

11 Baionako Udal Artxiboa. *Registres gascons: délibérations du corps de ville*. T. II (1514-1530), 1898, 214-215, 19 zbk. <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/41804>.

12 Ibidem.

tikoek saroiak tokiko botereei saltzen hasi zirenean, baina Baztango kasuan ere pareko prozesu bat antzeman daiteke XVI. mendean zehar.

1559an, Erratzu eta Arizkungo auzokideek monasterioaren olagizonaren zerriak bahitu zituzten esanez burdinolaren aziendek ezin zutela Baztango lurretan baimenik gabe ibili. Baztandarren arrazoi nagusia olagizonen jatorrian zegoen; atzerritarrak baziren, mugaz bestekoak, ezin zuten lur amankomunetan libreki ibili, ez baitziren auzokideak izanen. Burdinola errentan hartzen zutenak baztandarrak baziren, orde, eskubidea zuten. Aurka, monasterioak burdinolakoek beti izan zutela aziendekin Baztanen ibiltzeko eskubidea defendatu zuen. Izan ere, burdinola errentan ematen zenean, baldintzen artean zegoen Baztango lur eta mendiez gozatzeko eskubidea izatea. Maizterrak lapurtarrak izanagatik, mendi, larre eta belarrez gozatu, nahiz egurra, zura eta ikatza egin, eta minerala erretzeko eskubidea zuten¹³.

Ohikoa zen Urdazubiko monasterioaren burdinola errentan hartzen zutenak mugaz besteko herrietakoak izatea. Burdinola, urte horietan izen bereizgarriarik ez zuena –gerora, Olazarra–, Urdazubi eta Ainhoa artean zegoen, Landibar inguruan. Konkista ondoko urteetan, Juan San Martin abadeak Mitxelot Landibar urdazubiarrari eman zion errentan; Orbara lizentziatua abade zela, *Mozkorrin* ezizenez ezaguna zen Donibane Lohizune eta Baionako merkatariak hartu zuen; ondoren, 20 urtez, Joan Bocal donibanetarrak, *Osoçuria* deituak; eta, azkenik, 1559an Sarako Kristobalek zuen burdinola¹⁴.

1569an, beste auzi bat izan zuten fraideek, kasu horretan, Senpereko burdinolako olagizona zen Domingo Ezpeletari ikatza saltzeagatik. Horiek zioten edozein auzotarrek zuela eskubidea Baztango basoak aprobeitzatzeko, bai etxerako eta baita kanpoan saltzeko ere, batez ere, Lapurdin. Horretan aritzen ziren bai baztandarrak eta baita urdazubiarrak ere:

[...] como son remos, madera para cubas, pipas, barricas, cercillos de fresno y de avellanos, gamellos, tajadores y escudillas; y aún los mismos vecinos de la dicha tierra de Labort compran las cosas suso dichas de los dichos vecinos de la dicha tierra de Vaztan y de Urdax y de su granja de Zugarramurdi, y vienen por ellos y llevan sus azemilas y carretas pagando los derechos reales de Vaztan y del dicho monasterio¹⁵.

Joanes Martikorena Alkerdi, urdazubiarrak, izan zen abadearen baimenarekin «Arizcayñahar»-en ikatza egin zuena. Barruti borobilaren barruan omen zegoen alderdi hori, Senpererekin mugan. Haltzeko txondor bat egin zuen ikatza Ezpeletari saltzeko, eta karga bakoitzeko erreal bat eskatu zion. Horretarako olagizonak lau zama abere bidali zituen txondorrera –«cuatro machos con sus acemillas»–, baina ia hogeit hamar txondor zituen itxaroten, armatuta balezta eta lantzekin. Mandazainak atxilo eramane zituzten Lekarotzera, mendi hori herri lur zela esanez. Behin eta berriz erreplikatu ziren

13 NAO_AE, 37623 eta 37637 prozesuak.

14 Ibidem.

15 NAO_AE, 16055 prozesua.

auziak dira horrelakoak, baita 1584eko hitzarmenaren ondoren ere. Urte horretan, Urdazubiko monasterioak eta Baztanek urte luzez izandako auziei amaiera emate aldera, Mitxelia, Gorrelia eta Animeliako elietako saroiak banatu zituzten. Monasterioari Animeliako 27 saroiak egokitu zitzaizkion, eta Mitxelia eta Gorreliako 108ak Baztanentzat izanen ziren, baina monasterioak bertako zuhaitzak mozteko eskubidea izaten jarraituko zuen, zenbait baldintzekin¹⁶.

Monasterioak saroietan haritza mozteko beharra bazuen, lehenengo Baztangoen baimena beharko zuen, eta soilik eraikuntzarako materiala eskuratzeko izanen zen; burdinola konpontzeko materiala behar bazuten, ez zuten baimenik beharko ordea (ez baitzen bidezkoa izanen burdinola geldirik egotea izapide horiek egiten ari ziren bitartean); saroiak aziendak sartzeko izanen ziren, eta baztandarrenak monasterioaren saroietan sartzen baziren, edo alderantziz, elkar bahitzeko askatasuna izanen zuten; monasterioak bere aziendak erabil zitzakeen Baztango saroietan, auzokidea zen heinean, baina inoiz kanpotarrak; Animeliako azienden erdia baztandarra izanen zen, trukean monasterioari adostutakoa ordainduta; burdinolarentzat ikatza herri lur guztietan egin ahalko zuten fraideek, saroietan salbu; burdinolaren administrari eta maizterrek egurra errekaez eraman ahalko zuten ola zaharrera; eta, azkenik, debekatuta izanen zuten Ainhoakoei eta beste mugakideei (Lapurdi) egurra eta ikatza saltzea.

2.2. Bakeola

Sentenciamos y mandamos se haga una ferrería de labrar hierro en la endrecera llamada Azcar, más arriba de la peña y en el río de Ororbidea, que ponemos por nombre Baquiola que quiere decir herrería de paz, que es el puesto y sitio donde los dichos abad y monjes del monasterio intentaron hacer la dicha herrería o en otra parte donde pareciere será más útil y provechoso para todos [...]¹⁷.

1584eko auzia izan zen Bakeolako burdinolaren abiapuntua. 1577an, Urdazubiko fraideak burdinola berri bat eraikitzen hasi ziren, ziurrenik ola zaharrak zuen arrakastak bultzatuta (Zudaire, 1979, 134. or.). Orabideko errekaen bazterrean eraiki zuten, baina herri lurretan zegoela esanez, baztandarrek bortizki suntsitu omen zuten. 1584eko epaiak zioenez, Mitxelia eta Gorreliako elietako saroiak jabetza Baztani zegokion, eta monasterioa ordainsaririk gabe uztea ez zenez bidezkoa, burdinola bat eraikitzeke baimena eman zioten. Burdinola hori Azkarreko parajeen eraikiko zuten, harkaitza baino gorago, Orabidea errekaen urak erabiliz, eta monasterioak eta Baztanek erdibana eginen zuten; hau da, biena izanen zen. Hori dela eta, *Bake-ola* izena

16 NAO_AE, 44567 prozesua; (1729). *Memorial ajustado de el pleyto, que en grado de suplicacion litiga el Real Monasterio de San Salvador de Urdax contra D. Antonio Gaston de Yriarte... sobre que a dicho Real Monasterio se le mantenga, y ampare en la posesion... de gozar en todos los terminos comunes de el Valle... de Baztan*. BiNaDi: <https://binadi.navarra.es/registro/00008375>; (1748). *Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos y alegatos, que se han porducido en el pleito, que han litigado en el Real y Supremo Consejo de este Reyno de Navarra, el Valle y Universidad de Baztán, el Real Monasterio de San Salvador de Urdax, Lugares de Zugarramurdi y Urdax, y el Fiscal de su Magestad*. Academica-e (Nafarroako Unibertsitate Publikoa). 29-30 orr. <https://hdl.handle.net/2454/23411>.

17 NAO_AE, 44567 prozesua.

hartuko zuen –epaiak erakutsi nahi zuen adiskidetasunaren isla–. Bakeolako burdinola urte beteko epean eraiki beharko zuten, eta baztandarren erruz eraikitzen ez bazen, urte bakoitzeko 52 dukat eman beharko zizkieten monasterioari. Bakeola eraikitzearekin, monasterioaren burdinola Olazarra izenez ezagutu zen.

Bakeolaren jabegoa, hortaz, elkarbanatua izanen zuten monasterioak eta Baztanek, eta, ondorioz, bien artean zaindu eta konpondu beharko zuten. Bakeola erre edo suntsitzen bazen, bi alderdien artean berreraiki beharko zuten. Ola zaharrak bezala, berriak ere Baztango mendietan egurra egin zezakeen, eta debekatutako bakarra Bakeolatik ola zaharrreranzko mendiak izanen zituen, besteari gordeak. 1584eko epaia 1591an baieztatu zuen Nafarroako Errege Gorteak, eta inork ezinen zuen burdinola berririk eraiki ola berritik 2 legoatako distantzian, jada martxan zeudenen hornidura bermatzeko.


Vidal Pérez de Villarrealek (1977, 349-352. or.) Baztango Udal Artxibategian gorde-tako dokumentu baten transkribaketa egiten du, eta, bertan, Bakeola eraiki aurretik ekarritako hiru adituk egindako aurreikuspenak azaltzen ditu. 1584eko maiatzaren 4ean, Juan Hualde, Domingo Iparragirre eta Domingo Dolagarairi galdetu zioten zenbat balio zuen burdinola eraikitzeak. Bakoitzak materialen eta eraikuntzaren balioespen bat egin zuen, eta burdinolaren errenta zenbat izanen zen kalkulatu zuten.

Juan Hualde (Lesaka): Uraren saltoak 12 ukondoko altuera zuen (5-6m), eta ez zen presarik behar; nahikoa zen adar batzuk trabeska jartzearekin. Ubideak 200m luze izanen zituen estoldarekin bat; olaren zoruak 37x34 ukondotakoko neurriak, horma sendoeekin; eta olagizonen etxeak 24x11x12 ukondotako neurriak ganbararekin bat. Ola kare eta harriz eraikiko zen, eta gainontzeko obra eta tresneriarekin batera 1.700 dukat beharko ziren. Etxebizitza egurrez egiten bazen, 200 dukat gehiago: 1.900 dukat guztira. Hauspoak (*barquines*), mea erretzeko labeak eta bideak irekitzea ez ziren kalku-luetan sartzen, eta maizterraren kontu izanen ziren mea erosi eta garraiatzea, nahiz ikatza egin eta ekartzea. Bestalde, burdinolak bere biziraupenerako 100 ardi eta ahuntz, 12 idi eta 12 behi, 24 zerri eta beharrezko zama abereak izateko baimena izanen zuen, eta horiek bazkatzeko larre eta uren eskubidea. Hori guztia kontutan hartuta, burdi-nolak urteko 300 dukatetako errenta izan zezakeela kalkulatu zuen.

Domingo Iparragirre (Ezpeleta): Senpereko burdinolako olagizona. Hualderekin batera proiektua zehatz-mehatz aztertu omen zuen, baina bere ustetan burdinola egitea 1.900 dukat baino gehiago kostako zen. Izan ere, toki horretan ziurrenik harria aurki-tuko zuten, eta hori puskatzeak kostuak igoko zituen. Iparragirreraren arabera errenta 200 dukat inguruan egonen zen, aintzat hartuta minerala Olazarretik ekarri beharko zutela eta landutako burdina ere bertara itzuliko zutela.

Domingo Dolagarai *Bulon* (Ezpeleta): Ainhoako burdinolako olagizona. Ez zuen datu nabarmenik eman: errenta 150 dukatetan egon zitekeen, eta obrak 1.800 dukat kostako ziren guztira.

Maiatzaren 6ean, arduradunek galdetu zuten ea etxebizitza harriz egiteak zenbat igoko zuen aurrekontua: erantzuna 80 dukat gehiago izan zen. Burdinolaren eraikuntza



Irudia 1. Olazarra eta Bakeola burdinolen kokapen mapa. Iturria: egileak sortua.

monasterioak hartu zuen beregain, eta, ondorioz, fraideek izanen zuten bere erabilera, bakarrik, 11 urte eta erdiz. Egun batzuk geroago, maiatzaren 17an, berriz elkartu ziren ordezkariak Urdazubin eta ondorengo erabaki zuten: monasterioak adituek esandakoaren arabera eraikiko zuten burdinola berria; irabaziak jasoko zituen ola lanean hasten zen momentutik 11 urtez, eta, ondoren, Baztanekin erdibana; eraikinak egiteko egurra herri lurretan lortuko zuen, baina zuhaitzak oinetik ebaki beharko zituzten, txaradiak hazteko eta 30 ukondoko distantzian zuhaitzak zutik utziz¹⁸; azkenik, denbora tarte horretan burdinolaren errenta edozeini emateko eskubidea izanen zuen monasterioak, aziendekin batera eta baratze txiki batekin. Itxura denez, 1585eko apirilera burdinola amaitu zuten fraideek; soilik etxebizitza eraikitzea falta zen, eta burdinolaren usufruktua 14 urtetara luzatzea eskatu zuten, lanak garestitu egin baitziren haitza aurkitu zutelako –Domingo Iparragirrek aurreikusi bezala–. Uztailean hasi zen Bakeola lanean, eta 1600. urteraino monasterioak bakarrik izan zuen horren gaineko eskumena (Pérez de Villarreal, 1977, 353-354. or.).

18 Sistema hori Behe Erdi Arotik zen ezaguna Ingalaterra eta Frantzian: *coppices under/with standards* edo *tailles sous futaie* izendatua. Txaradien artean, hau da, oinetik moztutako zuhaitzen artean, zenbait metroko distantzian, zutik uzten ziren zuhaitz luze edo tantaia. Txaradiak ikatzetara bideratzen ziren heinean, tantaia hazten uzten ziren aziendentzat bazka sortu eta, beharrezkoa balitz, etorkizunean materialetarako mozteko. Egoera eta beharrek zehazten zuten azken erabilera hori (Warde, 2006, 36. or.; Keyser, 2020, 216. or.; Poulblanc, 2020, 247. or.).

2.3. Olazarra eta Bakeolaren errenta eta produkzio datuak

2.3.1. Errenta kontratuak

Ezagutzen dugun Olazarraren lehenengo errenta izkribua Eulogio Zudairek jasotzen du (1979, 173-176. or.). 1531an, Orbara lizentziatu abadeak Joan Sorondori eman zion burdinola errentan, Donibane Lohizuneko merkatariari –agian, aipatutako *Mozkorrin* ezizenez ezaguna zen merkatari bera zen–. 4 urtetako errenta zen, martxoko Ama Birjinaren egunetik hasita, eta urteko 133 franko eta 5 tarja ordainduko zituen. XVI, XVII zein XVIII. mendeetako errenta kontratuetan zenbait baldintza errepikatu egiten ziren, baina orokorrean horiek zorrozten joan ziren denboraren poderioz. Kasu horretan, Sorondok Baztango eta monasterioaren larre eta mendiak gozatzeko askatasuna zuen; abadearen eskumena izanzen zen burdinolaren kide nagusiak (presa, anteparak, burdinolaren gailurra, zepoak eta ardatzak) konpontzea eta ubidea garbitzea, eta gainontzeko konponketak maizterrak egin beharko zituen. Hauspoak ere abadeak erosi beharko zituen, adituek balioetsitakoak. Nafarroako gainontzeko burdinoletan, sarri, hauspoak maizterrek erosi beharra zituzten, eta errenta amaitzen zenean, nagusiak horien balioa ordainduko zien edo maizterrek eramanez egiten zituzten beste burdinola batetara. Sorondo eta familia ongi bizi zitezenean, abadeak burdinolaren etxebizitza konponduko zuela zin egiten zuen, bertan bizi eta aziendak ere bertan etxeratu ahal izateko.

Urdazubiren eta, bereziki, burdinolaren gertutasuna zela eta Frantziarekiko, abadeak ibiltzeko baimena (*salvoconducto*) lortuko zien olagizonari, haren familiari eta burdinolako langileei –gainera, gogoratu beharra da maizterrak gehienetan lapurtarrak zirela–. Era berean, zin egiten zuen mea ekartzen lagunduko ziola (gerora azalduko denez, minerala Bizkaitik ekartzen hasiko baitira), baina horrek sortuko zituen eskubide edo zergak Sorondok ordaindu beharko zituen. Bizirauteko beharko zituzten zerealak, garia eta artatxikia, monasterioaren errotan ehotzeko betebeharra izanzen zuen maizterrak, eta fraideek sagardoa saltzeko bazuten, horiei erosi beharko zien. Urtero lau astez, burdinolak monasterioarentzat lan egin beharko zuen, haren beharrak betetzeko; eta, 4 urteren ondoren, Sorondok burdinola utzi beharko zuen, horren jabegoa aldarrikatu gabe. Azkenik, garaiko errenta kontratuetan ohikoa bihurtu zenez, gerrateren bat gertatzekotan eta burdinolak ezin bazuen funtzionatu edo minerala ekarri, Sorondo errenta ordaintzetik salbu geratuko zen.

XVI. mendean zehar, erretegi dagokienenez, soilik erreferentzia solteak aurkitu dira, bestelako auzietan gordetakoak, eta 1594 arte ez da errenta kontratu osorik aurkituko. Urte horretan, Urdazubiko monasterioak Domingo *Bolunto* Olagariri eman zion Olazarra eta Bakeolako burdinolaren ardura. Hiru urtetako kontratua zen, eta 700 dukat ordaindu beharko zituen bi olengatik (3 txandatan, 200-300 dukat aldiko)¹⁹.

1531an, Joan Sorondori agindu zioten bezala, Boluntok askatasuna zuen egurra eta ikatza Baztango herri lurretan eta Urdazubiko barrutian egiteko, baina betiere saroi-

19 NAO_AE, 283435 prozesua.

etatik kanpo eta 1584eko hitzarmena betez. Gainera, ikatza egin behar zuenean, lehenik monasteriora jo beharko zuen, eta horiek aginduko zioten non egin. Berriro ere monasterioa behartuta zegoen maizterrari, familiari eta langileei ibiltzeko baimena eskuratzera espainiar eta frantziar koroen arteko gerrarik bazegoen. Eta, nola ez, itsasoan ere gerra sortuko bazen eta ezinen bazuen mineralik ekarri, orduan errenta ordaintzetik salbu egonen zen²⁰.

Domingo Olagarai ezpeletarra zen izatez, eta bere errenta kontratua Juan Arretxe elizondorak auzitara eraman zuelako iritsi da gaurdaino. Izan ere, azken horrek Urdazubiko monasterioaren eta Boluntoren aurka jo zuen, izatez nafarra ez zen bati errenta ematearen aurka agertu baitzen. Monasterioak ez zuen atzera egin, eta burdinolak beti lapurtarrei ematen zizkietela errentan esan zuen, Baztanen ez baitzegoen bertan lan egin nahi zuen nahikoa jende. Fraideek, ohitura zenez, eskaintza hoiberena egiten zuenari eman zioten burdinolen ardura –enkantera aterata–, eta, kasu horretan, lapurtar bat izan zen. Azkenik, esan zuten Juan Arretxe ez zela inoiz olagizona izan eta ez zuela behin ere burdinolarik administratu. Fraideen ustetan Arretxeren interesak bestelakoak ziren: burdinolak ez zituen berarentzat nahi; beste lapurtar batek eskatu zion errenta kontratua hartzeko, baina ez zen gai izan.

XVI. mende amaieran lapurtarren aurkako jarrerak igarri daitezke, baina, gerora, zuzenean kontratuetan zehaztuko zuten frantsesek ezin zutela burdinoletan ez eta horiekin lotutako jardueretan, ikazkintzan kasu, lanik egin. 1636eko erasoaren ondoren orokortu zen jarrera izan zen hori; 1635 eta 1659 bitarteko gerra Franko-espainiarra deritzonaren testuinguruan frantziarrek Baztani erasoa jo ziotenean (Floristán, 2014, 189. or.).

1600ean, Bakeola martxan jarri zenetik 14 urtetara, Baztanek monasterioaren aurka jo zuen. Jada bien artekoa izan beharko zuen administrazioak, baina Baztan ez zegoen ados monasterioak hitzartutakoa baino garestiago paratu zuelako errenta eta, ondorioz, irabaziak ere handiagoak izan zituelako. Gainera, Animeliako sarioiek mugatu gabe jarraitzen zuten, eta ez zuten ubide eta presa indartzeko karga-hormarik egin. Azkenean, atzera bota zuten salaketa, izan ere, gerren ondorioz Bakeola geldirik egon zen zenbaitetan, eta hor sortutako gastuen galera fraideek hartu zuten bere gain. Soilik sarioiak mugatzeko eskaerarekin egin zuten aurrera baztandarrek (Zudaire, 1979, 142-143. or.). Ezagutzen den hurrengo errenta 1624-26 bitartekoa da, kasu horretan ere lapurtar bati egina. Joanot Aranederrek, Donibane Lohizuneko auzokideak, 400 dukat ordaindu zituen burdinola bakoitzeko: horietatik 600 dukat monasterioarentzat eta 200 dukat baztandarrentzat izanen ziren. Berriro ere baimena zuen zuhaitzak mozteko saroietatik kanpo, baina jada zenbait debeku ezarri zizkieten: ezingo zituen lizarrak moztu, ezta ikatza egin txaradietan baimenik gabe, eta soilik iraileko San Migeletik martxora bitarte motz zitzakeen haritzak. Neurriak hartzen hasi ziren basoen biziraupena bermatzeko. Gainontzeko baldintzak errepikatu egin ziren: zerealak eho eta sagardoa erosi monasterioan egin beharko zuten; mineralaren garraioa bere esku zegoen; eta konponketa nagusiak monasterioak egin beharko zituen.

20 Ibidem.

Monasterioak ohitura zuenez, burdinolaren errenta enkantean paratu zuen lehenik, eta ziurrenik Joanot eta Joanes Araneder senideek egin zuten eskaintzarik onena: 400 dukat olako. Bi txandetan ordaindu beharko zuten: ekaineko San Juanetan eta Eguberrietan, erdia diru espainiarretan eta beste erdia frantsesetan. Berrikuntza moduan, eta hemendik aurrera errepikatuko zena, ikatza egosi ondoren txondorrek oholekin tapa zitzatela agintzea izan zen, bustitzea eta usteltzea saihesteko, baita ondoren zetorren maizterra-rentzat 5.000 kintal mea prest uztea burdinolaren martxa ez gelditzeko. Antza denez, Bakeola soilik burdinola nagusia zen, hau da, soilik burdinaga edota barrak lantzen zituen, eta, ondoren, Olazarrera eraman bertako olatxoan produktuetan bilakatzeko (Pérez de Villarreal, 1977, 335-356. or. eta Zudaire, 1979, 143-144. or.). Lanaren banaketa egiten zuten beraz. Gipuzkoan eta Bizkaian ere ohikoa zen jardun hori. XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran, olatxoan agerpenak burdinaren ekoizpena zenbait pausu eta espaziotan banatzea ekarri zuen. XVII. mendean zehar hedatu ziren horiek, eta burdinola nagusietan ekoiztiko totxoak olatxoetan tenkatu eta tresnetan bilakatzeko aukera ematen zuten (Bilbao, 1987, 57. or.; Aragón, 2011, 117. or. eta 2012, 80. or.).

1636 arte bi burdinolek normaltasunez lan egin zuten. 1635ean, Luis XIII eta Felipe IV.ak gerra adierazi zioten elkarri, eta Pirinioen bi alderdiak berriro ere fronte bilakatu ziren, Europa mailako borroken mendeko baziren ere –Hogeita Hamar Urteko Gerraren testuinguruan– (Floristán, 2014, 189. or.). Zenbait gudaroste frantsesek muga zeharkatu eta Urdazubiko monasterioa, errota eta bi burdinolak suntsitu zituzten; baita bertako tresna eta materialak hartu eta hainbat azienda bahitu (Pérez de Villarreal, 1977, 356. or. eta Zudaire, 1979, 145-146. or.). Bi autore horien aburuz Bakeolako burdinolaren jarduera urte horretan amaitu zen. Haatik, Fraideek azkar berregin zuten Landibarren zegoen Olazarra, eta Hernando Olagarai ezpeletarrak hartu zuen horren ardura; eta, beste behin, arazoak izan zituen baztandarrekin, horren jatorria zela eta ukatu egin baitzioten mendietan aziendekin ibiltzea²¹.

1664an, ordea, Bakeolaren berregitea ia amaituta zegoela baieztatu daiteke. Horrela adierazi zuen Jeronimo de Aco eskribauak:

la cequia estava abierta en forma y la otra herrería con su armazón de maderamen y otras cosas pertenecientes a su hedificio y [...] podrá estar aquella en estado perfecto de poder labrar, y me dijeron que para el día de San Miguel de septiembre poco más o menos estará corriente²².

1670eko ekainaren 4ean, 4 urtez egindako errenta kontratua dago jaso²³; eta Alejandro Arizcunek (1988, 298. or.) ere aipatzen du 1675ean beste 4 urtez errentan eman zela, gero datuak berriro desagertzen badira ere. Hau da, denbora tarte batean berriro martxan paratu zuten Bakeola. Pedro Borda izan zen, 1670ean, Baztan eta monasterioaren aurka kexatu zena Bakeolako burdinolaren errenta kontratua Lazaro

21 NAO_AE, 152178 prozesua.

22 Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa (BFAH), AJ 00027/002.

23 NAO_AE, 44913 prozesua.

San Juanenari 6 hilabetez luzatzeagatik. Maizterrak ekainean sartu ohi zirela burdinolara zioen, materialak biltzeko garairik egokiena zelako. San Juanenari 6 hilabetez errenta luzatuz gero, neguan hartuko zion txanda, eta hori ez zuen nahi. Neguan sartuta urak oso handiak omen ziren, eta minerala eta ikatza ezin ziren burdinolara eraman; gainera, Bortzirietan eta gainontzeko herrietan ohitura zen errenta maiatzetik-maiatzera egitea, negu txarrak ekiditeko. Arrazoi gehiago ere ematen zituen Bordak: San Juanenari luzatzen bazioten errenta, Baztango kontzejuak lan bikoitza izanen zuen olako tresneria kontatzen.

Martin Iturria eta San Juanenaren errenta 1665eko irailaren 19tik, 1671ko maiatzaren 1era zen, eta, ondoren, San Juanenaren luzapena eginen zen. Burdinolan eta gainontzeko egitekoetan ezinen zuten atzerritar eta frantsesek ibili, kalte handiak egiten baitzituzten mendietan, eta, ondorioz:

[...] en breve se consumirán todos, si no se pone debido remedio en gran perjuicio y daño del valle y de servicio del rey, nuestro señor, por llevar y pasarlos también al enemigo de la Corona muchos remos y otros pertrechos de guerra con pretesto que los llevaran a las herrerías y en especial a la vieja del convento de San Salvador de Urdax, que está a tiro de arcabuz de la casa de Francia, para obras y reparos de ellas con fraude y engaño y así que con los arrendadores de ambas herrerías se guarde y observe [...] ²⁴.

Baztandarrak ez zeuden Bordarekin ados, eta ez zuten amore emanen luzapenarekin. Izan ere, Borda azaroan sartuko zen burdinolara eta ekainaren 4erako kontratua egin izanen zuen; hau da, bitarte guzti horretan materialak biltzeko nahikoa denbora bazuen. Dagoeneko bazituen 5.000 kintal gordeak, eta horiek ez ziren galduko; ikatza neguan ere egin zezakeen, eta, ezin zuenez aurreikusi zenbat ikatz beharko zuen urte guztian zehar, ola martxan zegoen heinean ikatza egiten jarraitu beharko zuen. Horrelako luzapenak oso ohikoak omen ziren, eta Bakeolaren kasuan are gehiago. Urdazubiko monasterioaren pribilejioa zela eta, Bizkaiko Jaurerriak jartzen zituen oztopoak ugariak ziren, eta olagizonek mea erreserbak egin beharra zituzten arazoei aurre egiteko. Hori zen San Juanenaren kasua, eta horregatik eskatu zuen 6 hilabetetako luzapena, gordeta zuen minerala eraldatu ahal izateko. Beraz, Bordak ez zuen zertan luzapenaren aurka egin, egoera berberean egonen baitzen etorkizuna, ziurrenik.

Azken urte horietan, Olazarra eta Bakeolaren errenta bananduta egiten zutela dirudi; bi kontratu ezberdinen bitartez. 70eko hamarkadan eta 80ko ia osoan, Bakeolak martxan jarraitu zuen beraz, baina Alejandro Arizcunek (1988, 299. or.) hamarkadaren amaieran Baztango Haranak burdinolen aktibitatea gelditzeko eginiko saiakerak aipatzen ditu. 1687tik aurrera, komentuekin eztabaidatzen saiatu ziren burdingintzaren jarduera guztiz gelditzeko, jada egurraren salmentak irabazi handiagoak ematen baitzituen. Badirudi, hala ere, Baztanen eskaerek ez zutela arrakastarik izan, baina egoerak berak geldiarazi zituen burdinolak, 1692an, frantsesen erasoan ondorioz. Urte

24 NAO_AE, 44913 prozesua.

horietan, Bakeola berriro suntsitu zuten, eta, 1702an, soilik administrariaren etxea eman zen errentan, burdinola aipatu gabe.

Olazarraren jarduera bestelakoa izan zen. Soilik monasterioaren eskuetan, 1685ean, Migel Labakik hartu zuen 4 urtez, Norberto Bordarekin asoziatuak. 300 dukat eta 3 karga abadira ordaindu beharra zizkieten fraideei errenta gisara: erdia Eguberrietan eta beste erdia Pazko egunerako. Monasterioak hondamendiren bat gertatuz gero, ola ez berreraikitze aukera hartzen zuen bere gain; presan egurra pilatzeko sarerik ez jartzeko agintzen zuen; eta langileak soilik hemengoak izan zitezela eskatu zuen. Baina ez hori soilik, ikazkin eta garraiolariak ere nafarrak izan beharko zuten, eta baztandarrek baziren hobe. Zugarramurdiarrek, ordea, debekatuta izanen zuten lan horietan aritzea; Frantziarekiko zuten gertutasuna zela eta, ikatza, zura eta egurrarekin tratuan aritzen zirelako mugaz bestalde. Gainontzeko baldintza asko errepikatu egiten ziren, basoaren ustiaketaren inguruan batez ere. Haatik, Olazarra eta Bakeolako inguruetan 5 ofizina edo ikaztegi baino gehiago ezingo zituztela egin agindu zitzaizkien; eta, azkenik, ikatza garraiatuko zuten zamalarien zerrenda bat egin beharko zuten: horien izena eta zelabere kopurua zehaztu eta muga igaroko ez zutela aginduz²⁵.

Mendea igaro ahala, baldintzak geroz eta murriztaileagoak bilakatu ziren: bai basoaren ustiapenaren inguruan eta baita langileen jatorriari zegokionean ere. Gordeta dagoen azkeneko errenta izkribua 1693koa da, Bakeola desagertu zen garai berekoa. Kasu horretan, Olazarra Esteban San Juanena beratarrari eman zitzaion –1693tik 1696 arte–. Errenta kontratu berezia zen, izan ere, Espainia eta Frantziaren borrokak zirela eta, Bizkaitik zetozen 5.000 mea kintalak geldirik zeuden, eta San Juanenak Bortzirietako mineralarekin lan egin beharko zuen. Bortzirietatik ekarritako mea erabiliz gero, urteko errenta 213 dukat eta bi karga abadira izanen ziren; Bizkaitik ekartzeko aukera bazuen, ordea, 300 dukat eta bi karga abadira ordaindu beharko zituen²⁶.

Urdazubiko monasterioaren eta Baztanen burdinolen errenta prezioak ez ziren batere apalak; gainontzeko nafar burdinolekin konparatzen badira, horien errentak 80 eta 150 dukat bitartean zeuden XVII. mendean zehar (Lizarraga, 2023, 579. or.). Urdazubiko burdinolen kasuan, minerala ziurtaturik zuten, eta, gainera, Bizkaitik ekartzen zuten. Hau da, kalitate hobereneko minerala erabiltzen zuten. Ez zen hori gertatuko, orokorrean, Nafarroako gainontzeko burdinolekin, bertako minerala erabiltzen baitzuten. Alderagarriak, agian, Aranoko Arranbide burdinolako datuak dira: 1664ean, urteko 440 dukateko errenta zuen. Horrek ere Bizkaiko mea erabiltzen zuen: Somorrostro edo Galindotik Errenteriko Basanoaga-ra itsasoz eta zelabereekin Arranbideraino ekarria²⁷. XVII. mendean, Gipuzkoako burdinolekin konparatzen badira ere, Urdazubiko olen errenta ia bikoitza zen: 1624 eta 1692 bitartean, Oiartzun, Azpeitia edo Hernaniko burdinolek 200 dukat inguruko errenta zuten (Aragón, 2011, 126. or.).

25 NAO_AE, 77781 prozesua.

26 NAO_AE, 125308 prozesua.

27 NAO_AE, 270400 prozesua.

Bakeolako burdinola ez zuten beste behin berreraiki beraz, XVIII. mende hasieran monasterioak saiakera bat egin bazuen ere. 1727an, Baztani baimena eskatu zion Bakeola egon zen tokian burdinola txiki edota olatxo (*martinete*) bat eraikitzeko, ola nagusi batentzat nahikoa mendi ez baitzegoen. Baztanek, ordea, ezezkoa erantzun zion²⁸. XVIII eta XIX. mendean zehar, monasterioaren burdinola zuzenean fraideek administratu zuten. 1740ean, Pedro Lastiri fraideak eta, 1804ean, Antonio Arrozpide fraideak, adibidez (Zudaire, 1979, 156. or.).

Urtea	Maizterra	Jatorria	Errenta	
			Olazarra	
1513	Mitxelot Landibar	Urdazubi	–	
1531-1535	Joan Sorondo <i>Mozkorrin</i>	Donibane Lohizune	133 franko eta 5 tarja	
20 urtez	Juan Bocal <i>Osoçuria</i>	Donibane Lohizune	–	
1559	Kristobal Sara	Sara?	–	
1570	Beltran Maya Arretxe	Amaiur	–	
			170 dukat zor	
			Olazarra	Bakeola
1594-1597	Domigo <i>Bolunto</i> Olagarai	Ezpeleta	700 dukat	
1624-1626	Joanot Araneder	Donibane Lohizune	800 dukat	
1662-1668 1664-1670	Hernando Olagarai	Ezpeleta	–	–
1665-1671	Lazaro San Juanena		–	380 dukat
1671-1674	Pedro Borda	Arizkun	–	466 dukat
1675-1679	–		–	5670 erreal eta erdi
				(Arizcun, 1988, 298 or.)
Olazarra				
1685-1689	Migel Labaki	Arizkun	300 dukat + bi karga abadira	
1693-1696	Esteban de San Juanena	Bera	213 dukat (Bortzirietako mea) + bi karga abadira	
			300 dukat (Bizkaiko mea) + bi karga abadira	

Taula 1. Jasotako errenta izkribuen datuak. Iturria: Nafarroako Artxibo Orokorra, Auzitegi Errealak.

28 (1748). *Executorial, insertas, sentencias...*, 183.orr.

2.3.2. *Produkzio datuak*

Urdazubiko burdinolen inguruko produkzio datu zehatzik ez dugu ia aurkitu gaurdaino. Badakigu produkzioa Donibane Lohizunerantz bideratzen zutela, eta bertako burdinek sarrera zuzena zutela Frantziara beraz. 1535ean, Nafarroako burdinola gehienek konposizio bat sinatu zuten Antonio Fonseca bisitariarekin, Erregeorde zen Cañeteko Markesaren, Diego Hurtado de Mendozaren, izenean. Urte horretatik aurrera, burdinola horiek ekoiztutako kintal bakoitzeko 6 marai ordaindu beharko zituzten (burdin kintal handia, Gipuzkoako 150 liberaren parekoa), eta, ordainetan, salbu zeuden beste karga eta zerga guztietatik. Gainera, askatasuna izanen zuten produkzioa Gipuzkoa, Frantzia, Biarno eta Guenara eramateko. Konposizioa sinatzen zuten burdinolen artean Lesaka, Bera, Etxalar, Arantz, Igantzi, Goizueta, Arano, Leitza, Areso, Ezkurra eta Eratsungoak zeuden²⁹. Baziren konposatu gabeko burdinolak, hala nola Eugui, Aezkoa edota Luzaidekoak; Urdazubikoak ere ez ziren aipatzen sinatutako akordioan. Baina ez da jakina azken horiek ze eskubide erreale ordaintzen zituzten: Erdi Aroaren amaieran, aurreratu denez, lezta ordaintzetik salbu zeuden errege barkamenei esker.

Urdazubiko Olazarrek XVI eta XVII. mendeetan zehar burdinola nagusia eta olatxoa zituen, eta Bakeolako burdina ere bertara itzultzen zen. Hala eta guztiz ere, XVIII. mende hasieran Olazarrek ez zuen olatxoa edo ez zen nahikoa bere produkzioa eraldatzeko. Izan ere, 1727an, monasterioak olatxo bat eraikitze baimena eskatu zion Baztani, eta Olazaratik 800 kintal burdin lantzeko ekarriko zituztela zin egiten zion³⁰. Mende amaierarako, ordea, burdinola nagusiari olatxoa erantsi zioten –edo baieztatu daiteke bazuela gutxienez³¹; izan ere, 1793ko erasoaren ondoren azkar berreraiki zituzten biak: burdinola nagusia eta olatxoa (Zudaire, 1979, 148-156. or.).

Eulogio Zudairek (1979, 166. or.) jasotako datuak dira zuzenean burdinolaren produkzioa erakusten duten bakarrenetakoak. Hala ere, zeharkako informazioak argibide gehiago eskuratzeko aukera ematen du. Antza denez, 3 kintal mea behar ziren kintal bat burdin egiteko. Atzetik datorren atalean azalduko bada ere, 1534eko errege zedulan 1.500 kintal mea Bizkaitik ekartzeko eskatu zituen monasterioak. Horiekin 500 kintal burdin lortuko zituzten bada³². Mende amaierarako 10.000 kintal mea ekartzen zituzten Olazarra eta Bakeolarentzat: 1.600 kintal burdin ola bakoitzak, alegia³³. 1673an, monas-

29 Lesakako Udal Artxiboa (LUA), 110. liburua; NAO_AE, 10369 prozesua.

30 (1748). *Executorial, insertas, sentencias...*, 183. or.

31 Bizkaia eta Gipuzkoan gertatu antzera, momentu ezberdinetan teknologia edota antolaketa ezberdinak antzeman daitezke. XVI. mendean eta XVII. mende hasieran lanaren banaketa gertatu zen olatxoak eraiki zituztenean. Ola nagusietan eraldatutako burdinak fintzen eta lantzen zituzten horietan. XVIII. mendearen lehen erdialderako, ordea, sistema integrala bezala izendatu dutena agertu zen: burdinola nagusia eta olatxoa eraikin bakar batean bat eginda (Bilbao, 1981, 60. or.; Aragón, 2012, 80. or.).

32 NAO_Artxibo Pribatua (AP)_RENA, 10 k, 9 zbk. Gutxi gorabeherako datuak dira. Izan ere, batzaz beste 3 kintal mearekin kintal bat burdin lortzen zela baieztatzen bazuten ere, egosketak, ikatzaren kalitateak eta bestelako eragileek baldintzatuko zuten ekoizpena. 1765ean, Berrizaungo burdinolakoek (Igantzi) zioten: «Para labrar un quintal de hierro necesitan en qualquier parte tres quintales y medio de mena o menos, según se tenga de fortuna bien en recocer» (NAO_AE, 206727 prozesua).

33 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (GAO)_JD IM 2/21/12. 1.666 kintal, zehazki.

terioak 12.000 kintal mea ekartzeko baimena eskatu bazuen ere, soilik 6.000 onartu zizkioten: 2.000 kintal burdin bi olen artean³⁴. Azkenik, 1693an, Olazarrak 5.000 kintal mea kontsumitzen zituen, eta horiekin 1.600 kintal burdin egin ahalko zituen³⁵.

Egur eta ikatz kargen kontsumoa kontutan hartuta, ordea, honako ondorioak atera daitezke. XVI. mendean, 12 karga ikatz behar ziren, bataz beste, burdin kintal bat osatzeko (Díez de Salazar, 1983, I, 145. or.). Ignacio M.^a Carrionek (1996, 67 eta 269. or.) dioenez, ordea, XVIII. mendean Gipuzkoan ohikoen 6,5 anegatako ikatz kargak ziren, eta lau karga ikatz ziren beharrezko burdin kintal bat lortzeko. Nafarroako kargak, ordea, ia erdiak ziren: hau da, 3,5 anegatakoak. Beraz, 7,5 karga ikatz nafar beharko ziren kintal bat burdin lortzeko. 1706 eta 1719 bitartean, 6.000 eta 9.000 karga ikatz artean kontsumitu zituen monasterioaren burdinolak, eta, beraz, 800 eta 1.200 kintal artean ekoitzi zituen. 1746an ere, ola nagusiarentzat 9.000 karga ikatz beharrezko zituztela aitortu zuten fraideek, 1.200 kintal ekoizteko adina alegia³⁶.

Urtea	Landutako Kintalak	
	Burdinola Nagusiak	Olatxoak
1804	1.200	
1818-19	1.645 eta 5 arroa	1.950
1825-26		1.691
1826-27	1.341 eta 4 arroa	1.596
1827-28	1.813 eta 3 arroa	1.930
1828-29	1.400	1.630
1829-30	705	839
1830-31	600	695
1831-32	1.063	1.280

Taula 2. XIX. mende hasierako produkzio datuak. Iturria: NAO, «Urdax», Libro de Ferrería (Zudaire, 1979, 166. or.).

Datuak, hortaz, XIX. mende hasierarako jasotakoen parekoak dira –gora-beherak tarteko–. 1804rako, Antonio Arrozpide fraideak Olazarrak urteko 1.200 kintal ekoizten zituela baieztatu zuen, eta horretarako 6.500 karga ikatz erabiltzen zituela. Hau da, 5,5 karga ikatz kintal burdinako (Zudaire, 1979, 156 eta 166. or.). Ondorioztatu daiteke, beraz, burdinolen ekoizpena 800 eta 1.600 kintal artekoa izan zela XVI. mende amaiera eta XIX. mendeen artean: XVIII. mende hasieran jaitsiera bat igar badaiteke ere berriro mende erdialdera 1.200 kintaletan egonkortu zen. Halaber, Gipuzkoako burdinolekin konparatuta, batez bestekoan sartzen zirela esan daiteke. Probintzian, 1752an, ekoiz-

34 BFAH_AJ00027/002.
35 NAO_AE, 125308 prozesua.
36 (1748). *Executorial, insertas, sentencias...*, 260.orr.

penaren bataz-bestekoa 815 kintaletan kalkulatzen dute, alde handia izanik burdinola batek edo besteak ekoizten zuenaren artean (Carrión, 1991, 265. or.). Hortaz, Urdazubiko monastegiak, Espainia eta Frantziaren artean izandako gerrek eta arrazoi bera-gatik minerala hornitzeko noizbehinkako zailtasunek eragindako geldialdiez salbu, ziurtasun handiko ekoizpena izan zuela ikus daiteke. Seguru aski instituzio erlijioso baten babesak, Bizkaiko minerala ekartzeko eskubideak, Baztango herri lurretarako sarrerak eta produkzioa zuzenean Frantziara bideratzeko erraztasunak izan zuen zeresana horretan.

3. BURDINOLEN BEHARREZKO LEHENGAIK

Olazarra eta Bakeolako burdinolak Ugarana eta Orabidea erreken bazterretan eraiki zituzten, eta horien urak ezinbestekoak izan ziren fabriken gupil eta makineriak mugiarazteko. Egur-ikatz eta egurra inguruko mendietatik lortzen zuten batez ere, eta horren testigu dira behin eta berriz errepikatutako auziak. Mineralari dagokionez, ordea, mintzagai diren burdinolak bereziak izan ziren, minerala Bizkaiko Jaurerrietik ekartzeko errege baimena zuen bakarra Urdazubiko monasterioa baitzen.

3.1. Burdin minerala eta errege zedulak

Lehendabizi, Olazarrak eta, ondoren, Bakeolak, biak ala biak, Somorrostroko burdin mea erabili zuten burdina ekoizteko. Horren inguruko lehenengo erreferentzia 1534ekoa da, eta Orbara lizentziatua abadea izan zen eskaera egin zuena:

E así mismo por quanto el dicho monasterio tiene una herrería cerca d'él con la qual se sustentan los dichos fraires y porque en sus términos les falta la mena y les conviene buscarla fuera, suplican a V. Mag. que por término de 10 años, que es también el tiempo en el que dicho monasterio se podrá rehedificar, les haga merced para lo suso dicho. De mandarles dar una cédula para que puedan sacar en cada un año de la provincia de Guipúzcoa o del condado de Vizcaya mil y quinientos quintales de mena que se podrán gastar en cada un año en la dicha herrería, sin pagar la saca d'ellos y llevarlos por mar a San Juan de Lus, que de allí por el río se puede llevar cerca de la dicha herrería [...] ³⁷.

1.500 kintal horiek mendeak aurrera egin ahala 10.000 bilakatu ziren. Somorrostro-tik itsasoz ekartzen zituzten Donibane Lohizuneraino, eta Urdazuri ibaian barrena Azkaineraino. Bertan, gurdietan kargatu eta Olazarreraraino eramaten zuten minerala, ondoren, kargaren erdia Bakeolara eramateko. Esteban Berrarte donostiarrak, 1591n zioenez, Muskiz eta Somorrostroko «panuquero»-etatik hornitzen ziren, «venaquero» ere deituak, eta marea igotzen zenean Donibaneko portutik ibaian gora burdinoletatik oso gerturaino iristen ziren ontziak³⁸. 1575ean, Zumaian ospatutako Gipuzkoako

³⁷ NAO_AP_RENA, 10 k, 9 zbk.

³⁸ GAO_JD IM 2/21/12.

Batzar Nagusiei Urdazubiko monasterioak beste eskaera bat egin zien: Joan Etxaide abadeak baimena eskatzen zuen berriz ere Gipuzkoa edo Bizkaitik Donibane Lohizune bitartez mea ekarri ahal izateko Urdazubin zuten burdinolara³⁹.

Somorrostroko meategiak izan dira Euskal Herriko burdin aztarnategi aberatsenak, denbora luzez eta gehien ustiatuak, eta, bertan, udaberri amaieran, uda betean eta udazken hasiera arte egiten zuten lan. Erdi Arotik hasita, bertako minerala kanpora ateratzeko debeku eta auziak erabatekoak izan ziren. Bizkaiko Foruak minerala Jaurerritik ateratzea debekatzen zuen; soilik eraldatutako burdina atera zitekeen, baina, aurrena, Salazartarrek eta, ondoren, beste hainbatek minerala esportatzeko baimenak eskuratu zituzten. Burdin mineralaren salerosketak mozkin handiak sortzen zituen, eta atzerrira saltzea debekatua bazegoen ere, ez erreinuko gainontzeko lurraldeetara eramatea –gainera, zergarik ordaindu gabe– (Pérez-Goikoetxea, 2003, 28. or.). Lehenik, 1622an, Bizkaia Jaurerritik aterako zuten mineralari kintaleko 3 marabeditako zerga ezarri zion (Aragón, 2011, 139. or.). 1633an, hori handitzen saiatu zen, eta, 1640an, esportatutako mea kintal bakoitzari 8 marabediko zerga inposatu zion. Igoerek haserrea piztu zuten gipuzkoarren artean, horiek baitziren kaltetuenak, ordura arte minerala legalki eta kargarik gabe eskuratzen baitzuten (Carrión, 1991, 71. or.). Erabaki horiek Frantziarekin izandako liskarrekin bat egin zuten, eta Gipuzkoak Jaurerriari zenbait ontzi egiteko laguntza eskatu bazion ere mea garraiolaria babesteko, ez zegoen ados zergen igoerarekin (Aragón, 2011, 139. or.). Soka luzea zuen kontua zen ordea, 1606ean, jada, Gipuzkoa haserre baitzegoen bizkaitarrek ezkutuan Frantziarantz eramaten zuten minerala zela eta. Rafael Uriartek (2012, 222. or.) dioenez, sarritan, Urdazubiko monasterioari bidali beharreko minerala erabiltzen zuten aitzakia gisa Frantziara Somorrostroko mea eramateko.

Gipuzkoa eta Bizkaia liskar handiak izan zituzten Somorrostroko mineralaren inguruan, baina biak Urdazubiko monasterioaren aurka batzeko gai ziren (Aragón, 2011, 139. or.). 1591an jo zuen Urdazubiko monasterioak Gerra Kontseilura Gipuzkoa eta Bizkaiaren aurka egiteko. Kexa azaldu zuen esanez ordu arte askatasunez egin zuena oztopatu nahi zietela: hau da, 10.000 kintal mea Donibane Lohizunera ekartzea Olazarra eta Bakeola hornitzeko. Gipuzkoak zenbait arrazoi eman zituen Urdazubiko fraideen baimenaren aurka, eta behin eta berriz errepikatu zirenak dira. Batetik, Muskiz eta Somorrostroko minerala Frantziara pasatzen zenez, geroz eta burdinola gehiago eraiki ziren bertan; hortaz, gipuzkoarrek ez zuten nahikoa mea horien burdinoletarako, eta geldirik zeuden. Izan ere, ontzi bizkaitarrek nahiago zuten Donibane Lohizuneraino joan Donostian gelditu baino, bertan bikoitza ordaintzen baitzioten, eta bidaian ez zuten aparteko gasturik egiten. Ondorioz, Gipuzkoan burdinola gutxiago zeuden martxan, langile gutxiago, eta, beraz, irabazi gutxiago. Bestetik, atzerrira zihoan minerala erregearen etsaiei saltzen zitzaienten, eta horiekin erlijio kristauaren aurka jotzeko ontzi eta armak eraikitzeko tresnak egiten zituzten, gehienak, gainera, Ingalaterrara eramateko. Azkenik, gezurra zen Urdazubiko burdinolek 10.000 kintal behar zituztenik, eta horien aitzakian 50.000 kintal baino gehiago eramaten zituzten Frantziara. Frantsesak ziren fraideak erregearengana joatearen erabakiaren atzean zeudenak; gipuzkoarrek ezarri

39 GAO_JD AM 9/2.

zuten kontrol zorrotzaz jabetuta beharrezkoa baitzuten urdazubiarren baimena gezurretan minerala eskuratzeko. Hori guztia kontutan hartuta, gipuzkoarrek Urdazubiko monasterioaren baimena deuseztatzea eskatu zuten, eta lizentziaren bat behar bazuten, hori Hondarribiatik barrena ibiltzeko izan zedin –horrela Urdazubira eramaten zuten minerala kontrolpean izanen zuten–⁴⁰.

Arrazoi eta eskaera horiek mende luzez errepikatu ziren, eta Urdazubiko fraideek behin eta berriz erakutsi zituzten errege zedulak –behin baino gehiagotan berretsia, gainera–. 1591ko apirilaren 18an, esaterako, Andres de Pradak, Felipe II.aren idazkariak, baimena baieztatu zien. 1601ean, 1608an eta 1621ean ere zedula errepikatu zuten. Gipuzkoa, 1607an, ordea, berriro ere oztopoak jartzen saiatu zen, eta Urdazubiko monasterioari emandako zedula bezalakorik gehiago ez emateko eskatu zuen. Portugalete eta Somorrostroko ontziek gau zein egunez Donibane, Ziburu eta Baionako portuetan olagizonak zain izaten omen zituzten minerala ezkutuan erosteko, eta bizkaitarrak «naturales» izanik, ezin ziren artatuak izan, eta gipuzkoarrak diru asko gastatzen ari ziren kostaldea zaintzen. Berriro ere Bizkaitar minerala agortzen ari zela esanen zuten, eta Urdazubiko olek Bortzirietatik eskuratu zezaketela. Gipuzkoarren aburuz arazo guztiak konponduko ziren Urdazubiko monasterioari lizentzia kenduz gero.

Urdazubiko fraideei emandako lehenengo errege zedula ezagutzen ez badugu ere, aurrenekoa Karlos I.ak eman ziela dirudi, Orbara abadearen eskaerari erantzunez agian, eta bai Felipe II.ak nahiz Felipe III.ak berretsi zituzten⁴¹. 1625eko abuztuaren 25ean, ordea, Bizkaiako Foruari kasu eginez, minerala atzerrira ateratzea debekatua zegoela aldarrikatu zuen erregeak. Dikotomiarekin jarraituz, urriaren 24ean, Urdazubiko fraidea zen Migel Maldonado Gerra Kontseiluaren aurrean agertu zen komentuak 4 errege zedula zituela eta ez Jaurerritik ezta Probintziatik ezin zitzaizela debekurik ezarri esanez. Fraideak bosgarren zedula bat eskatu zuen. Antza denez, 1626 eta 1671 bitartean, nolabaiteko lasaitasunez jardun zuten fraideek, eta minerala arazorik gabe eskuratu zuten betiere, oztopoak-oztopo. Urtero 3 ontzi izendatzen zituztela adierazi zuten 1632an, eta horiek zirela 10.000 kintalak ekartzen zituztenak «Alcalde de Billeteros»-ari lizentzia erakutsi ondoren. 60ko hamarkadan, arazoa ez zen minerala izanen ordea. 1636ko frantziarren erasoaren ondoren, berriz ere bi burdinolak martxan jartzekotan ziren, baina Bizkaitik frogak eskatu zitzaizkien minerala bidaltzen hasi aurretik. Baztango eskribaua izan zen Olazarra martxan zegoela eta Bakeola ia guttiz berriturik zegoela zin egin zuena 1664ean.

1673an, monasterioa berriz kexatu zen; azken 3 urteetan trabak jartzen ari zitzaizkien minerala Bizkaitik ateratzeko, eta, ondorioz, burdinolak geldirik zeuden –fraideen sostengu ekonomiko bakarra izanik ere⁴²–. Interesgarria da, nola fraideek jada horien kontrako interes partikularrez hitz egiten hasi ziren; esanez kontrabandoa egiten bazen,

40 GAO_JDIM2/21/12 eta BFAH, AJ 00027/002.

41 BFAH_AJ00027/002.

42 Gisa horretako arrazoibide ezkorrak ohikoak bilakatu ziren koroaren aurrean bakoitzaren ideien defentsa egiteko. Bai Gipuzkoak eta baita fraideak ere baliatu ziren horretaz.

ez zela haien ardura, baizik eta ontzietan zetozen marinelen, eta ez zutela zertan ordaindu besteen iruzurrengatik. Oraingoan Batzar Nagusiek arrazoia eman zieten, baina arazoa bestelakoa izan zen. Izan ere, ontzi bizkaitarrek atzerrira minerala eramatea debekatuta zuten (1671ko Batzar Nagusietako erabakia) frantsesekin ibili beharra ziren, baina gerra franko-holandarra hastearekin bat, frantsesek ez zuten nabigatu nahi holandar kortsarioen beldur. Monasterioko arduradunek, hortaz, eskaera berri bat egin zuten: utzi 12.000 kintal mineral ateratzen ontzi eta marinel bizkaitarren bidez, eta fidantzapean zin eginen zuten monasterioaren burdinoletan erabiliko zituztela. Jaurerriak onartu zuen eskaera, baina 12.000 beharrean soilik 6.000 kintaletarako baimena eman zien: «en navíos y gente naturales del Señorío que se obligarán a jurar que no llevarán en sus vajeles más de la dicha cantidad de vena»⁴³.


Bizkaitik minerala eskuratzea, ikusten denez, ez zen beti erraza izan. Urdazubiko monasterioaren eskuetan zegoen mineralaren inguruan sortuko ziren arazoei konponbidea ematea, horien izenean baitzeuden errege zedulak. Baina jarduera horren ohiko jokamoldea komentuekin zerikusirik ez zuten erabaki, auzi eta gertakarien menpe egon zen ia beti. 1693an, esaterako, Olazarra Esteban San Juanena beratarrari eman ziotenen errentan. Beratarra izanik, Bortizirietatik minerala eskuratu zezakeen; monasterioak bazuen 5.000 kintal lortzeko baimena Bizkaitik, baina Frantziaren aurkako gerra zela eta, portuak itxita zeuden. 1694ean, Konbertsa Hitzarmena sinatu zen, eta Bizkaitik Baionarainoko itsas joan-etorriak baimendu zituzten. San Juanenak fraideei «sinesmen gutuna» eskatu zien Juan Andonegi bizkaitar batzarkideari erakutsi eta 5.000 kintala mea ekarri ahal izateko:

... unos chanoqueros de Vizcaya que conduciendo dos patachas o embarcaciones pequeñas de mena de dicho señorío a San Juan de Luz para venderlas en el entretenimiento de dicha herrrería fueron apresados por corsarios franceses. No obstante, en virtud de dicha conversa fueron dados por libres y vendieron la dicha mena al dicho Esteban de Sanjuanena con la calidad que dichos vendedores se les hubiere de dar recibo del dicho real monasterio para dar satisfacción en dicho señorío de Vizcaya de averla vendido y entregado [...] Item que el dicho Esteban de Sanjuanena inmediatamente a lo referido en el artículo antecedente encargó a M(-) de Olabaraz, dueño de la casa da Oliosena de San Juan de Luz, para que en virtud de la dicha conversa y para dicha herrería y por dicho Real Monasterio le trajese del dicho señorío de Vizcaya una bajelada de mena⁴⁴.

Konbertsak, edota *Tratados de Buena Correspondencia* ere deituak, espainiar eta frantziar koroetako lurralde desberdinek egiten zituzten hitzarmenak ziren, batez ere, euskal lurraldeen artekoak. Horien helburua gerra garaietan merkataritza harremanak ez gelditzea zen, eta kantauriar lurraldeen arteko itsas ekonomia sistemaren osagai garrantzitsuak bilakatu ziren XVI eta XVII. mendeetan, jatorria Behe Erdi Aroan bazuten ere (Alberdi, 2002, 135. or.).

43 BFAH_AJ00027/002.

44 NAO_AE, 125308 prozesua.




Irudia 2. Bilbo aldetik Donibane Lohizuneraino itsasontziek egiten zuten bidea. Iturria: egileak sortua.

Atera	Maisua	Barkua	Kintalak	Iritsi
Uztailaren 15a	Pedro de Lazabal	Espiritu Santo	800 kintal bi bidaia	Uztailaren 29an Abuztuaren 18an
	Joseph de Castaños kapitaina	San Francisco	400 kintal	Uztailaren 29an
Uztailaren 23a	Domingo de Abanto	San Anton	400 k.	Abuztuaren 8a
Uztailaren 16a	Joan de la Bodega	San Juan	390 k.	Abuztuaren 12a
	Joan de Santelices	Nuestra Señora de las Angustias	320 k.	Lizentziadun ordainagiria falta da
	Joan de la Bodega, menor	Nuestra Señora de Montellano	400 k.	Uztailaren 29a
	Antonio de Llano	San Vicente	400 k.	Uztailaren 29a
	Pedro de Mançanal, mayor	San Joan	420 k.	Uztailaren 24a
	Francisco de Medrano	San Pedro	300 k.	-
Abuztuaren 4a	Damian Gonzalez	San Antonio	1.200 k. bi bidaia	Lizentziadun ordainagiria falta da
	Juan de San Martin	San Juan	800 k. bi bidaia	
	Pedro de Llano	San Buenaventura	460 k.	

1673ko urriaren 28an, Francisco Mendizabal eskribauak dio 6.000 kintaletara iristeko falta denari soilik emateko baimena, eta ez gehiago.

Taula 3. Bizkaiko Jaurerria eta Urdazubiko monasterioaren arteko auzitik ateratako datuak. 1673an Somorrostrotik Donibane Lohizunera eramandako mearen datuak. Iturria: BFAH_AJ00027/002.



Irudia 3. Donibane Lohizunetik Azkaingo ibai porturainoko bidea. Iturria: egileak sortua.

3.2. Su egurra, zura eta ikatza

Burdinola nagusi batek egur ikatza behar du karbonoa askatu eta minerala burdin bihurtzeko erreazio kimiko gerta dadin. Urdazubiko burdinolek Baztango mendietan eskuratzen zuten egurra, bai txondorretan ikatz bihurtzeko, su-egurrerako eta baita eraikuntzarako eta konponketetarako zura eskuratzeko ere. Mende luzez Baztango kontzejuarekin tratuak egin zituzten basoen kudeaketa zela eta, eta burdinolek zenbait neurri bete beharra zituzten ikatza eta egurra lortzeko. Horietako asko errenta kontratuetan islatu ziren, zeinak geroz eta zorrotzagoak bilakatu ziren denbora igaro ahala. Orokorrean, Baztango herri lurretan eta monasterioaren barruti borobilean egurra eta ikatza egiteko askatasuna izaten zuten olagizonek, eta saroieta sartzea debekaturik zuten. Askotan, ikatza egin aurretik monasterioari jakinarazi beharra zioten horiek agintzeko non egin txondorrak⁴⁵. 1584eko hitzarmenean ere hori agindu zuten⁴⁶.

45 NAO_AE, 283435 prozesua.

46 NAO_AE, 44567 prozesua.

Baztandarrek askotan eraman zuten komentua eta burdinolen olagizona auzitara. Arrazoia, sarri, horien jatorrian zegoen. 1670ean, esaterako, frantsesek ezin zuten burdinolentzat lanik egin, eta horiei egozten zieten mendiak soiltzearen errua. Urdazubiko Olazarrara ikatza eramatea aitzakia jarrita, Frantziara eramaten omen zuten gehiena⁴⁷. 1685etik aurrera, aitzitik, maiatzaren 1etik iraileko San Migel egunera arte debekatu egin zitzairen haritzak moztea ikatza egiteko (bai adarretatik eta baita oinetik ere); txaradiak ere ezingo zituzten hazi baino lehen moztu; eta haritzak moztekotan, horien artean 12 ukondotako distantzia utzi beharko zuten. Gainera, debekaturik izanen zuten horiek oinetik moztea; moarratu egin beharko zituzten mendiak mantentze aldera, eta pagoekin 16 ukondotako distantzia utzi beharko zuten⁴⁸. 1693ko errenta izkribuak zumarrak eta lizarrak moztea ere debekatzen zien, soilik konponketa nagusiren bat egin beharra bazen izanen zuten baimena. Zuhaitzak moarratu egin beharko zituzten, eta inoiz ondotik moztu, basoak biziraun zezan. Ikaztegiak oholekin tapatzera beharturik zeuden ikazkinak gainera, egositako ikatza bustitzea ekiditeko⁴⁹.

XVIII. mendean zehar basoen ustiaketaren inguruko auziak biderkatu egin ziren, eta burdinolek egur salmentarekin lehiatu behar izan zuten. 1729an, Agirregi mendiaren ustiaketaren inguruan izan zuten liskarra. Baztango Haranak Tomas Bordari saldu zion mendi horren ustiaketa 1.000 pesoren truke, eta kanpoan zuen burdinola baterako ikatza egiteari ekin zion. Monasterioak zioen herri lurretan bere burdinolarentzat ikatza egiteko eskubidea zuela 1584eko hitzarmenaren arabera, baina baztandarrek horien ikazkina zen Bernart Aranburu preso hartu zutela Agirregin lanean ari zela. Baztanen aburuz, ordea, komentuak beste edozein auzokidek bezainbeste eskubide zituen eta ez gehiago, eta horien ikazkinek ez zutenez hitzartutakoa errespetatzen zenbaitetan atxilotu zituzten. Gainera, berrirori ere horien jatorri frantsesa aipatzen zuten, kanbotarrak (Lapurdi) zirela zehazki. Bi alderdien arteko salaketak errepikatu egiten ziren; hau da, monasteriokoek baztandarrei egozten zieten mendiak soilduak egotea eta hitzartutakoa ez betetzea; eta aurka, baztandarrek zioten monasterioaren ikazkinen lan txarra zela eta, Frantziara ikatz asko pasatzen zela eta basoak kontrolik gabe ustiatzen ari zirela.

Epaiak, azkenean, bi alderdiei eman zien arrazoia. Batetik, monasterioari onartzen zion burdinolaren maizterrek herri lurretan egurra eta ikatza egiteko zuten eskubidea; eta, bestetik, Baztani ere babesa ematen zion, esanez bazuela aukera egurra egin eta saltzeko, betiere bertakoei bazen⁵⁰. 1731an, antzeko arrazoiak errepikatu ziren; eta fraideak izan ziren, zuhaitzen kontsumo handia zela eta, Olazarra hornitzeko kanpora joan beharra zutela kexatu zirenak. Legoa bat eta erdi baino urrutiagotik ekarri beharra omen zuten ikatza, eta 8 arrobotako karga bakoitzeko zilarrezko 2 erreal gastatzen zituzten horretan. Gastu horiek ekiditeko Aritzakun eta Orobidea tokien artean 30.000 haritz landatzeko baimena eskatu zuten, baina ezezkoa jaso zuten berriz ere. Baztan-

47 NAO_AE, 44913 prozesua.

48 NAO_AE, 77781 prozesua.

49 NAO_AE, 125308 prozesua.

50 (1729) *Memorial ajustado de el pleyto...*, 56 or.

darren ustez monasterioak soilik herri lurak bereganatu nahi zituen landatze horien bidez⁵¹. 1743an, ikatza egiteko Ainhoatik (Lapurdi) 20.000 karga egur erosi behar izan zituen komentua Baztango mendiak soilduak zeudelako; eta minerala erretzeko otea eta egurra ere Lapurditik erosi zuten, Senpere eta Saratik⁵².

1748 artean gauzatu zen auzi luze eta korapilatsu horretan, beste hainbaten artean, epaileak Olazarrek eta Urdazubiko monasterioak behar zituen ikatz kantitatearen inguruan galdetu zuen, eta guztira 187.104 zuhaitz beharko zituztela kalkulatu zuten:

- Olazarrek urtero 9.000 ikatz karga behar zituen; 2 zuhaitzekin karga bat ikatz egiten zuten; eta kimatutako zuhaitz bakoitza osatzeko, 9 urte behar ziren. Hau da, 18.000 zuhaitz behar zituzten 9 urtetik behin, guztira 162.000 zuhaitz.
- Minerala erretzeko 100 karga ikatz behar zituzten urteko, guztira 900 zuhaitz.
- Monasterioaren 2 sukaldeetarako 800 karga ikatz, guztira 14.400 zuhaitz.
- Burdinolaren administrazio-etxeak auzokidetza bat zuenez, 900 zuhaitz tokatzen zitzaizkion, eta beste hain beste burdinolaren errota, labea eta Urdazubiko errota-rengatik: guztira 1.800 zuhaitz.
- Eliza, monasterio eta bestelako konponketetarako 292 zuhaitz, eta istripuren bat gertatzen bazen, badaezpada ere beste 300 zuhaitz: guztira 592, 12 urtetik behin osatzen baziren, guztira 7.104 zuhaitz.

Zuhaitz guzti horiek behar zituztela kalkulua eginda, toki batzuetan landaketak egiteko baimena eman zitzaien monasteriokoei: «se pueden plantar según la medida mathematica, e infalible, de árbol a árbol la distancia de doce codos [...] queda la principal reducida a doscientos seis mil, trescientos y quatro árboles»⁵³.

XVII. mendetik aurrera, biztanleriaren gorakadak eta tokiko ekonomiaren presioak baso eta larreen erabileran lehenengo neurriak hartzea ekarri zuen. Baina ez soilik horrek. Jose M.^a Imizcozek (1993, 178. or.) dioten bezala, antzinako gizarte egitura pixkanaka desegiten hasi zen. Herri lurren eta erabilera amankomunen gutxitzea eta nekazal komunitateen egitura kolektiboen ahultzea gertatzen ari zen. Herri lurrekiko eskubideak eta erabilerak jada ez zituzten ohitura eta usadioek arautzen, herri lurren pribatizazioak hainbat modu aurkitu baitzituen ordenantzen bitartez –itxiturak, bordak, iralekuak, landaketa pribatuak eta abar–. Arazoak mende amaieran larritu ziren basoen soiltzearekin, eta monasterioak burdinola asetzeko zuen beharra zela eta, XVIII. mende osoan zehar horri konponbidea ematen saiatu zen. 1729an, ziotenez, basoen berritzea bermatzekotan, irailean hasi eta maiatza bitartean egin beharra omen zen ikatza: «Porque de allí adelante no se podían hazer cortes algunos, pues se secaban los que se hacían y no echaban renuevos algunos, ni reverdecían»⁵⁴.

51 NAO_AE, 48145 prozesua.

52 (1748) *Executorial, insertas, sentencias...*, 565 or.

53 Ibidem, 174 or.

54 (1729) *Memorial ajustado de el pleyto...*, 538 or.

4. BURDINGINTZAREN AMAIERA

Olazarra eta Bakeolak, Nafarroako gainontzeko burdinolen antzera, behin baino gehiagotan eraberritu eta konpondu behar izan zituzten horien eraikin eta makineriak. Bakeolaren jarduna XVII. mende amaieran bukatu zen betirako, eta Olazarrak XIX. mende hasiera arte biziraun zuen. 1745ko azaroaren 17an, 1740eko autoa baieztatu zuten epaileek, eta Urdazubiko monasterioaren eta Baztanen arteko auziaren testuinguruan ebatzi zuten bi aldeek nahi bazuten Bakeola berregiteko aukera zutela. Baiezkoa bazen erabakia, burdinolak inguruan 2 legoatako barruti bat izanen zuen. Barrutia, mugatua, olarena izanen zen, eta, ondorioz, komentuariena eta Baztanena. Bi alderdiek adostu egin beharko zuten eremu horretan nola jokatu, eta beharrezko zuhaitzak landatu beharko zituzten mendia birsortzeko. Aitzitik, ez berritzeko erabakia hartzen bazuten, 2 legoa horiek banatu beharko zituzten. Jakina denez, Baztanek ez zuen Bakeola berritzeko inongo asmorik, 1731n bi burdinola berri eraiki baitzituen Elbeten, soilik bereak zirenak⁵⁵. Bai Olazarrak eta baita burdinola berriek, biek ikatz asko behar zuten, eta, beraz, ezinezkoa zen beste ola bat hornitzea. Gainera, Bakeola konpontzen bazuten, 40 urte beharko ziren horrek sortutako gastuak berreskuratzeko. Monasterioak kontrako jarrera azaldu zuen ordea. Interesa zuen 80 urtez martxan egon zen ola berritzeko. Izan ere, jada 1727an egin zuen eskaera olatxo bat eraikitzeke bertan, bere legoa erdian, burdinola nagusi bat egiteko adina baso ez zegoenez.

1746eko apirilaren 6an, monasterioak Bakeola berreraikitzea erabaki zuen. Don Isidoro Gil de Jaz izendatu zuen Kontseilu Errealak epaia aurrera eramateko. Tokiak mugatzeaz arduratuko zen, eta monasterioak urte bat izanen zuen burdinola eraikitzeke. Tarte horretan ez bazuen halakorik egiten, bi legoak banatu egingo zituzten. Hainbat testigu bidali zituzten Bakeolara ea berritze lanak hasi ziren ikustera: Fernando Diaz Jauregi arkitektoa eta Ramon Ameztoui hargina. Bi maisuek adierazi zutenenez, burdinolaren kideetan ez zen inolako lanik egin, eta horren inguruetan ere ez zen materialik bildu: «no se puede decir que se haya empezado a reedificar la expresada herrería llamada Baqueola»⁵⁶.

Azkenean, 1584eko epaia indargabetzea erabaki zuten, eta Bakeolako burdinola ez zen berregingo. Hitzartutako 2 legoak ez zituzten banatuko, eta Baztanentzat izanen ziren. Komentuak ola ezin zuenez berritu, ordainetan Baztanek 6 saroi eman zizkion: Baztanek monasterioaren barrutian zituen 6ak.

Urdazubiko komentuarien burdinolak, Olazarrak, ia beste mende batez iraun zuen. 1793an, frantsesek monasterioa, Urdazubiko herria, errotak eta burdinola suntsitu zituzten, eta fraideek Loiolako Santutegian hartu zuten babesa 1806 bitartean. Hala eta guztiz ere, 1800erako burdinolak berreraiki omen zituzten, eta horien administrazioa Antonio Arrozpide fraidearen eskuetan utzi. Urte gorabeheratsuak izan ziren,

55 Baztanen burdinola berrien inguruko aipamena A. Arizcunek (1988, 299-302. or.) egiten du. Hori eraikitzearen kostuak, errenta edota kontsumoa datuak biltzen ditu. 1777 bitartean jardun omen zuten.

56 (1748) *Executorial, insertas, sentencias...* 190 or.

eta, 1809an, Jose Bonaparteren dekretua betearaziz, ordena erlijioso guztiak deuseztatu ziren. Burdinolak Riviere anaiek hartu omen zituzten errentan 1809an, 8.000 erreale truke. Hiru urtez iraun zuten bertan, eta fraideak itzuli zirenean berriro ere burdinolak berreskuratu zituzten. Olazarraren amaiera, azkenean, XIX. mendeko desamortizazioekin batera iritsiko zen (Zudaire, 1979, 155-156. or.)⁵⁷.

5. ONDORIOAK

Urdazubi eta Zugarramurdiko herriak Urdazubiko monasterioaren abadetzaren menpe sortu ziren, eta Baztango auzo-komunitateetatik kanpo geratu ziren, denborarekin herri autonomoak osatu bazituzten ere. Aro Berrian zehar, monasterioaren, Urdazubiren, Zugarramurdiren eta Baztanen artean gatazka eta auzi ugari gertatu ziren, eta horien oinarrian auzotasuna, herri lurren erabilera, basoen gehiegizko ustiapena eta baliabideen kudeaketa egon ziren (Imízcoz, 2011, 16. or.). Kasu askotan, liskar horien protagonista burdinolak berak izan ziren; izan ere, instalazio produktibo horiek behar zituzten lehengai sorta ingurunea eraldatzeko gai zen.

Urdazubiko burdinolek zenbait ezaugarri bereizgarri izan zituzten Nafarroako gainontzeko burdinolekin konparatzen baditugu. Batetik, ordena erlijioso baten jabetza ziren. Nafarroako burdinolen gehiengoa, ordea, Erdi Aroan zehar tokikoen eskuetan egon zen; inbertsioak egin ahal izateko merkatarien maileguak behar zituzten eta baita koroaren barkamenak edo zerga salbuespenak ere. Instalazio horiekiko interesa handitu zen heinean, jabetza eta ekoizpen ereduak ere aldatu egin ziren, eta, XVI. mendean sartzearekin batera, familia burges txikiak, merkatariak eta, oro har, burdinoletan lan egiten ez zutenak eta errentan ematen zituzten pertsonaiak nabarmendu ziren (Mugueta, 2019, 105. or.); horien artean, zenbaitetan, elizgizonak. Urdazubiko monasterioa lez, egon zen beste ordena erlijiosorik burdinolen jabetza izan zuenik. Arantzan, esaterako, Jerusalemgo San Juan Ordena Elorbide burdinola eta Irulegiko mendiaren jabe zen, eta horiek errentan ematen zituzten⁵⁸. Orreagako Kolegiatak ere izan zuen harreman zuzena burdinaren ekoizpenarekin. Anizlarreako lurren jabetza zuenez, bertan zeuden burdinolek Kolegiataren baldintzak bete beharra zituzten; eta Luzaidako Olaberri burdinolaren jabea ere bazen⁵⁹. Urdazubiko fraideek, ordea, burdinolak komentuen inguruan eraiki zituzten, eta horien gaineko kontrol zuzena izan zuten; XVIII eta XIX. mendeetan, esaterako, horien administrazioa fraideen eskuetan utzi ohi zuten. Hau da, komentua bera bilakatu zen burdinaren ziklo guztia kontrolatzen zuena.

Bestetik, burdin mea Bizkaiko Jaurerrietik ateratzeko errege zedula zuen nafar burdinola bakarrak ziren monasterioarenak. Jakina da Nafarroako burdinolek ez zutela Somorrostroko minerala erabiltzeko eskumenik, eta bertako meategietatik eskuratu

⁵⁷ Eulogio Zudairek (1979, 160-167. or.) Olazarraren azken hamarkadaren datuak islatzen ditu *Libro de Arca de la Ferrería* dokumentuan oinarriturik.

⁵⁸ NAO_AE, 10662 prozesua.

⁵⁹ NAO_AE, 160652 prozesua.

beharra zuten. Hala ere, XVI. mendetik aurrera, batez ere, hori erabiltzen hasi ziren, eta nabigagarriak ziren ibaietatik gertu zeudenek erraz eskuratzen zuten: bai Bidasoa inguruan kokatutakoek, baita Urumearekin lotura zutenek ere. Errege baimen hori Olazarra eta Bakeolako errentetan islatuta zegoen; minerala ia ziurtatuta edukita, errentaren prezioak nabarmen igotzen ziren.

Ostera, antzekotasunak ere bazeuden monasterioaren eta Nafarroako gainontzeko burdinolen artean. Nabarmenena ia guztien muga izaera izan zen. Nafarroak itsasorako irteera zuzenik ez zuenez, ekoizpen eremu bakoitzak harreman estuak sortu zituen mugaz beste aldeko herriei: Leitzaldeko olek Berastegi, Elduaie eta, azkenean, Tolosaldearekin; Goizueta eta Aranok Urumealdeko herriei eta Oiartzunekin; Bortziriek mugakide zituzten Oiartzun, Irun eta iparraldekoekin; edota Luzaidekoek Donibane Garazirekin. Hau da, ekoizpen eremu bakoitza mugaz gaindiko eremu zabalago baten partaide zen ziurrenik, eta, Urdazubiren kasuan, Donibane Lohizunerantz zuen bideratua produkzioa. Langileak ere, ikusi denez, inguruko herrietakoak izan ohi ziren. Zenbait erreferentziengatik jakina da Urdazubiko monasterioaren olak ez zirela inguruko bakarrak izan: Ainhoan bazen burdinolarik, baita Senperen ere. Jean-Pierre Poussou-k (2013, 230. or.) dio Frantzia hego-mendebaldean, Uza eta Baigorriko industria salbu, egon zela garrantzirik izan zuen burdinolarik Pirinioetako muga eta inguruetako herrietan. Bastida, Bidaxune, Kanbo, Senpere, Hiriburu edota Ezpeleta izendatzen ditu, eta horietan Espainiara saltzen zuten iltze, burdineria eta tresna fabrika txikiak zeuden. Interesgarria izango litzateke Lapurdiko eta Urdazubiko burdinolen arteko harremana ezagutzea, produkzio horren nondik-norakoak eta elkar-eraginak hobeki ulertzeko.

Urdazubiko burdinolek oinarri ekonomiko sendoa eskaintzen zioten monasterioari eta, ziurrenik, baita auzokideei ere. Behin eta berriz konpondu eta berritu zituzten instalazioak, horrek zekarren inbertsio haundiari aurre eginez. Ziurrenik burdinaren ekoizpenak eta, batez ere, horri lotutako zeregin eta ogibideek izugarrizko garrantzia izan zuten lurralde horren egunerokotasunean, eta horren adibide da egun abuztuan Urdazubin ospatzen duten Burdinaren Eguna. Badira, hala ere, bete gabeko hutsune garrantzitsuak: fraideei hainbestetan leporatu zitzaaien kontrabandoaren gainekoak esaterako; azken hori ikertzea ia ezinezkoa bada ere, arrastorik uzten ez duen jarduna baitzen.

6. ERREFERENTZIEN ZERRENDA

- Alberdi, X. (2002). *Conversa* izenekoak eta Lapurdiren eta Gipuzkoaren arteko harreman komertzialak Aro Berrian. In J. Kintana Goiriena & K. Artetxe (2002). *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodología aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak* (135-154 orr.). Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).
- Alberdi, J. I. (septiembre de 1998). Aproximación al estudio de las ferrerías navarras en la Edad Media. Trabajo presentado en el *III. Congreso General de Historia de Navarra*. Pamplona.

- Aragón, A. (2011). La actividad siderometalúrgica guipuzcoana durante el siglo XVII: transformaciones y productividad. *Lurralde: investigación espacial*, 34, 109-149.
- Aragón, A. (2012). Las ferrerías guipuzcoanas ante la crisis del siglo XVII. *Cuadernos de Historia Moderna*, 37, 73-102.
- Aragón, A. (2021). Circulación de ganado y vías pecuarias en el País Vasco (español y francés) y Navarra durante la Edad Moderna. *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 18, 85-136.
- Arizcun, A. (1988). *Economía y sociedad en un Valle pirenaico del Antiguo Régimen. Baztán 1600-1841*. Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Saila.
- Bilbao, L. M. (1987). Introducción y aplicaciones de la energía hidráulica en la siderurgia vasca, siglos XIII-XVII. *Studia Historica: Historia Moderna*, 5, 61-75.
- Carrión, I. M. (1991). *La siderurgia guipuzcoana en el siglo XVIII*, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Díez de Salazar, L. M. (1983). *Ferrerías en Guipúzcoa*. Haramburu.
- Díez de Salazar, L. M. (1989). Fuero de Ferrerías de Cantabria, Vizcaya, Álava y Guipúzcoa. *Anuario de Historia del Derecho Español*, 59, 597-632.
- Executorial insertas sentencias, concordias, varios instrumentos, y alegatos, que se han producido en el pleito, que han litigado en el Real y Supremo Consejo de este Reyno de Navarra, el Valle, y Universidad de Baztan, el Real Monasterio de San Salvador de Urdax, Lugares de Zugarramurdi, y Urdax, y el Fiscal de su Magestad. Lleva un índice exalto de los lugares, donde se hallan los Pedimentos, Notificaciones, Pruebas, Concordias, Privilegios, Varios Intrumentos, y Declaraciones, Y últimamente las leyes, y Ordenanzas de este Reyno, que hablan del assunto, Todo à mayor claridad.* (1748). Academica-e. <https://hdl.handle.net/2454/23411>
- Floristán, A. (2014). *El reino de Navarra y la conformación política de España (1512-1841)*. Akal.
- Gener, M. (2014). Una aproximación a la tecnología del hierro prehidráulico y a su estudio. *Kobie: Serie Anejo*, 13, 13-20.
- Goñi, J. (2008). El monasterio premonstratense de Urdax en la Edad Media (1182-1520). *Príncipe de Viana*, 245, 703-721.
- Imízcoz, J. M. (2011). De las fronteras de la comunidad a las redes de la nación: construcción de identidades y de exclusiones en la vieja Europa. In B. Michel & N. Planas (2011). *Les sociétés de frontière: De la Méditerranée à l'Atlantique (XVI-XVIII.siecle)*. Madril: Casa de Velázquez. <http://books.openedition.org/cvz/1045>
- Jiménez de Aberasturi, J. C. (1980). Aproximación a la historia de la comarca del Bidasoa. *Príncipe de Viana*, 160, 263-410.
- Keyser, R. (2020). The Medieval Roots of Woodland Conservation: Northern France and Northwestern Europe, ca. 1100-1500. In A. P. Dowling & R. Keyser (ed.), *Conservation's Roots. Managing for Sustainability in Preindustrial Europe, 1100-1800* (203-229 orr.). Berghahn.

- Lizarraga, M. (2023). La presencia guipuzcoana en la siderometalurgia navarra durante la Edad Moderna (siglos XVI y XVII). In O. Rey Castelao & F. Cebreiro Ares (koord.), *Los caminos de la Historia Moderna. Presente y porvenir de la investigación* (572-581 orr.). Universidad de Santiago de Compostela.
- López de Gereño, M. T. (1996). El monasterio premonstratense de San Salvador de Urdax, génesis y evolución histórico-artística. *Príncipe de Viana*, 57, 19-60.
- Memorial ajustado de el pleyto, que en grado de suplicacion litiga el Real Monasterio de San Salvador de Urdax contra D. Antonio Gaston de Yriarte... sobre que a dicho Real Monasterio se le manutenga, y ampare en la posesion... de gozar en todos los terminos comunes de el Valle... de Baztan.* (1729). BiNaDi. <https://binadi.navarra.es/registro/00008375>
- Mugueta, I. (2008). La Botiga del Hierro: fiscalidad y producción industrial en Navarra (1363-1404). *Anuario de Estudios Medievales*, 38(2), 533-584.
- Mugueta, I. (2010). La primera industrialización en Navarra: las ferrerías en la Baja Edad Media. *Huarte de San Juan*, 16, 9-58.
- Mugueta, I. (2013). Les territoires de la sidérurgie médiévale au Pays Basque et en Navarre. In C. Verna & L. Hilaire-Pérez (koord.), *Les industries rurales dans l'Europe médiévale et moderne* (63-76 orr.). Presses universitaires du Midi.
- Mugueta, I. (2019). Las ferrerías de Anizlarrea (siglos XIII-XVI). In Aranzadi Zientzia Elkarte, *Artikutza. Natura eta Historia* (90-111 orr.). Donostiako udaleko Osasun eta Ingurumen saila.
- Pérez-Goikoetxea, E. (2003). *Burdingintza Triano eta Galdamesko mendietan*. Bizkai-ko Foru Aldundia.
- Pérez de Villarreal, V. (1977). Ferrerías y ferrones por tierras de Baztán (II). *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 27, 345-357.
- Poublanc, S. (2020). Managing Sourthern French Forests under –and before– Colbert: Between Law and Custom, ca. 1500-1700. In A. P. Dowling & R. Keyser (ed.), *Conservation's Roots. Managing for Sustainability in Preindustrial Europe, 1100-1800* (230-254 orr.). Berghahn.
- Poussou, J. P. (2013). Les industries rurales dans le Sud-Ovest de la France. In J. M. Minovez, C. Verna & L. Hilaire-Pérez, *Les industries rurales dans l'Europe médiévale et moderne* (223-244 orr.). Presses universitaires du Midi.
- San Jose, S. (2016). Los inicios de la metalurgia del hierro en Euskal Herria: La Edad del Hierro. In X. Orue-Etxebarria et al., *Historia del hierro en Bizkaia y su entorno* (53-76 orr.). Euskalerriaren Adiskideen Elkarte.
- Uriarte-Ayo, R. (2012). Mineral vizcaíno y cabotaje cantábrico al final del Antiguo Régimen. *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 7, 211-228.
- Warde, P. (2006). Fear of Wood Shortage and the Reality of the Woodland in Europe, c.1450-1850. *History Workshop Journal*, 62(1), 29-57.
- Zudaire, E. (1979). Ferrerías del Real Monasterio de Urdax. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 31, 125-177.